

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 22a / 574. zenbakia



**San Josepe itxita,
harrobi bi geratuko
dira herrian**

ORAIN ETA HEMEN: UDALTZAINGOA, LANTALDEA OSATZEN/8 • KIROLA: DEBAGOIENENKO PILOTA TOPAKETAK/12

Edertasunaren Gida

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

CARMEN

**Ile apaindegia
Solariuma**

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Lore



Olarte.10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA Ñ NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

Jose Antonio

**GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA**

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSI

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

Miren Garai

ESTETIKA ZENTRUA

Aguinaga Doktoressa (1.806)

- Zimurretako CO² lehenengo laserra (Barra-kodea)
- Ezpainen handitzea
- Liposukzioa edo lipoeskultura
- Bularren txikitzea eta handitzea
- Aurpegiko orbanak
- Gorputzerako LIPOFIT TAC tratamenduak
- Indarberritze tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzaz eta beroaz
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiaren garbiketa
- Makilajea
- Solariuma

LASER BIDEZKO DEPILAZIOA MEDIKUAREKIN Zarugalde 23, 2. ezk. Tel: 943 79 96 90

ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Gida honetan azaltzea
nahi baduzu, deitu ezazu
943 71 23 91 telefono zenbakira.

aitor

Gizonezkoen ile apaindegia
Otalora, 14 • 20500 ARRASATE

Tel.:
943 79 01 39
615 78 19 63

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu alkoholaren arazue konponketako hartu dan erabakixe?



JON MARKAIDA
Langillie

Neuk uste dot ondo dague-
la; hola, kalien zarata txi-
kixague egongo da. Baiñe
gauzak prohibiduite ez da
nahikue. Gero, alternati-
bak emun biher die, beste-
la ez da ezer egitten.



JOXE AGINAGALDE
Langillie

Ez dakit oso erabaki ona
dan. Hamen ez da *botilloi*
askorik ikusten, baiñe bes-
te leku batzuetan normala
da. Ez dot uste erabaki
horrekin ezer konponduko
dauenik, baiñe bueno...



ANARTZ AGIRRE
Langillie

Ez jat ondo pentsetan. Uste
dot arazue beste bat dala eta
debekuakin ez dala ezer
konponketan. Erabaki hori
arazue ebiteko besterik ez
da, eurak eskuek garbike-
tako, besterik ez.



JOANA IGLESIAS
Langabie

Ez dakit erabaki ona izen-
go dan kalien egoten dien
arazue konponketako, bai-
ñe alkohola berdin edango
da. Alternatibak emun
biherko leukie, baiñe ez
dakit zeintzuk.



ELENA SÁNCHEZ
Langillie

Ez dot uste irtenbide ona
danik, jentiek berdin eda-
ten jarraituko dau-eta. Gai-
ñera, kalien edaten daue-
nek ez daue konturik euki-
tten, eta dana zikin-zikin
geraketan da, hortaz...



ROSA MARI LARRAÑAGA
Etxekoandrie

Prohibiduten hasi aurre-
tik, alkoholaren gaiñeko
publizidadie kendu biher-
ko leukie. Horrekin batera,
gabetan gaztie egoteko
lokal batzuk egon biherko
litzakez. Dana kentzie...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZEBRABIDE LABAINKORRAK Euria etorri da gurera.
Euri pixka bat egin izana poztekoa da, baina arazotxo batzuk ere ekar-
ditzake. Irakurle batek gogoratu digu euriak zebra bide batzuetan ara-
zoak eragiten dituela. Hain zuzen ere, Otalora eta Okendo arteko bide-
gurutzean dagoen zebra bidea oso labainkor jartzen da egun euritsuetan,
eta ez da bakarra. Arazoaren muina erabilitako pinturan ote dago?

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLA /10

KULTURA /14

Etxebizitza aztergai

Arrasateko
etxebizitzen
egoera izan dugu
berbagai Jabier
Madrazo sailbu-
ruarekin.

Jorge Sánchez karateka

Jorge Sánchez 20
urteko arrasatea-
rra hirugarren
geratu da Euska-
diko Karate
Txapelketan.

Des-kontrolak, disco berria

Arrasateko Des-
kontrol taldeak
bigarren diskoa
izango du kalean
laster, Madrigo
discoetxe batekin.

ASTEKODATUA

1.969

LAGUNEK EGIN DIOTE ESKAERA ETXEBIDERI

1.969 lagunek egin diote etxebi-
zitza eskaera Etxebideri Arra-
saten, Etxebizitza sailburu Jabier
Madrazok aditzera eman zuenez.
Horietatik guztietatik, 1.891 lagun
Arrasaten daude errolatuta.

BESTEKEESANA

“ Madrilen egin zen
*Gazteak, alkohola eta
gaua kongresua*
manipulazio hutsa
izan zen antolatzaile-
en aldetik. Hara joandako askoren
asmoa zen beste leku batzuetan
egiten diren esperientziak jakitea,
eta, guztion artean, gizartearen
inguruko hausnarketa egitea. Eta ez
gelditzea azaleko arrazoietan.
Kongresu guztia oinarritu zen eurek
hasieratik zeukaten helburu baten:
Mariano Raxoik aurreratutako legea
plazaratzea, hain justu ere. Askoren
sentsazioa da erabili gintuztela
kontsentso bezaia. Nahi ziren gaiak
ez ziren landu, manipulazioa handia
izan zen... eta aukera ona galdu da.
Oso txarto. Beste leku batzuetako
jendearekin berba egin genuen eta
sentipen bera zeukaten; engainatu
egin gintuztela, alegia.

JONE BEITIALARRINGOITIA
ARRASATE IRRATIA/02-02-18

HERRITARRENBERBAK/ Ander Elortondo



Giza eskubideak vs. kultura eskubideak

Herri eskubideak
zeintzuk dira? Gai
hau doktoretza tesi
bat egiteko bestekoa
da, beraz, ez pentsa hemen nik
hamar lerrotan a zalduko
dudanik. Bihar, otsailak 16,
Udabiltzak biltzar bat izango
du oinarritzko eskubideen karta
osatzeko asmoz.
Bertan gai asko
jorratuko dira,
baina nik bi lehenak
korapilatuko ditut,
eskubide zibilak eta
kultura eskubideak.

Lehenaren
inguruan ezer gutxi
dago esateko, giza
eskubideak zeintzuk
diren aspaldi
zerrendatu baitzituzten Nazio
Batuek. Zoritxarrez, herri
honetan larregitan urratuak
izaten dira.

Hizkuntza eta kultura
eskubideak definitzea oso
garrantzitsua da, herri honetan
mendez mende gure izaera
zapaltzen dabiltzanei aurre
egiteko beste era bati atea
irekiz. Egunero ikusten baitu-
gu espainiarrak zenbateraino-
ko tolerantia diren beraienak
ez diren kulturekin.

Modan den gai bat aipatzea-
rren, ohitura kulturala den
painelu bat eramatearren,
neskatila bat eskolarik gabe
uzteko zorian izan dira. Jarrera
zapaltzaile hori justifikatu ahal
izateko, eskubide zibilak
urratzen dituzten (Ablazioa)
beste ohitura batzuekin

berdindu dute.
Painelua ohitura
kulturala da,
belarritakoa bezala-
xe, eta eskolatze-
ko eskubidea oinarri-
koa da. Nire guraso-
en garaian ez zegoen
belarritakoa era-
mango zuen gizon-
korik; beharbada,
berrogei urte barru

painelua gizonen jantziko dute.
Berdin zait hasiera batean zein
zentzu zuen paineluak. Gure
zenbait ohituraren jatorria
joanez gero, sorpresa desatse-
gin larregi izango genituzke
guk ere. Gure bailarako zenbat
intsumiso ibili dira kintoekin
dantzan eta diru batzen,
adibidez? Eskubide zibilak
urratu gabe, bakoitzak gura
duena egin beza, eta bere
herriko kultura eta hizkuntza
gordez bada, hobeto.

“Nire gurasoen
garaian ez zegoen
belarritakoa
eramango zuen
gizonezkorik”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurdaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 22**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 23**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 24**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 25**
A. Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09
- MARTITZENA, 26**
S. Español, Araba etorb. 17 ... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 27**
A. Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 28**
M.F. Azkoaga, Iturriotz. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguualatorria. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, 28an, Amaia Udal Antzokiko zineklubean *Visionarios*, 21:30ean.

PIEDEHIERRORREN ALDE
Bihar, kale bilkura izango da Musakolan, Joma parean, 13:00etan, *Mikel Piedehierro entrega tortura arriskuán* lelopean.

GERRAJERAKO ERLOJUA
Cerrajerako erlojuaren eraikina botatzea nahi ez duten herritar batzuek berbaldia egingo dute astelehenean, 19:00etan, Udaleko areto nagusian.

EUSKAL DANTZA IKASTAROA
Martxoaren 8tik ekainaren 21era arte, egubakoitzero, euskal dantza ikastaroa egingo dute Lore Gazteak taldeko lokalean, 19:00etatik 20:30ak arte. Gazte Bulegoan eman behar da izena, bederatzi euroren truke.

ARIZMENDIARRIETA BERBAGAI
Otsailaren 26an, 19:30ean, Eskolako aretoan, *Arizmendiarietaren pentsamendua* mahai-ingurua egingo dute.

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Gaur, 22:00etan, Donostialdeko Ira Et Decessus eta Santanderko Cementerio Show taldeek crust-hardcore kontzertua egingo dute.

AEDrenAGENDA

AED-KO BATZAR NAGUSIA
AED elkarteak batzar nagusia egingo du martxoaren 7an, eguenean, 19:00etan, AEDn bertan.

DEBAGUNeko EGUTEGIAK
Debagune ibarreko euskara elkarten elkarteak egutegia kaleratu du, eta oraindik ere erosteko aukera daukazu AEDn.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Drogak hizpide, ekitaldi asko izan ziren

Drogamenpekotasunen aurkako aste arrakastatsua egin zuten herrian. Tunantes del Norte taldeak *Dosis de pasividad* antzez-lana eskaini zuen ikastetxeetan. Horrez gain, asteburuan, hankapalu eta zanko tailer bana izan ziren, eta Txindokira irteera egin zuten, lelo horrekin berarekin.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ziarretzinka"

Zeharka etzanda.
-Ziarretzinka jarritta
euzki-epela artzen majo dago ori.



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Elisa Martija, hegazkin pilotua.

Elisa Martija hegazkin pilotu oñatiarra

Egun Madrilen hegazkinak pilotatzen irakasten dabilen oñatiar bat izango dugu lagun eguaztenean, 10:00etan. Elisa Martija hegazkin pilotua da, eta bere nahia laster hegazkin konpainia bateko pilotua izatea da. Burubelbarri dabil prestatzen.

Bestalde, baserriko kontuak gogoko dituzuenok hitzordua daukazu martitzenegorean. 11:15 inguruan, EHNE sindikatuarekin bat egiten dugu nekazaritzarekin lotura duten albiste berri izateko.

Pentsioak hizpide Arrasate Irratian

Azkenaldian zeresan handia eman dute pentsioek, legebiltzarkideek erretiro handiena jasotzeko araudia aldatu zuten-eta. Erabakiak hautsak harrotu zituen, eta erabakia bertan behera utzi behar izan zuten. Guk ere pentsioen gaia aztertu dugu, Juan Antonio Iturberekin eta Felipe Antonio Igarbarekin, biak pentsionistak. Zapatuan eta domekan, astean izan diren beste tarte batzuk errepikatuko ditugu. Globalizazioa eta etorkinak tartean.

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 19	2 °C
MAXIMOA Eguaztena, 13	20 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	93,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	20 °C	2 °C	17 l/m²
Eguena, 14	8 °C	5 °C	40,5 l/m²
Egubakoitza, 15	8 °C	5 °C	5,1 l/m²
Zapatua, 16	8 °C	5 °C	1,6 l/m²
Domeka, 17	7 °C	5 °C	2,5 l/m²
Astelehena, 18	8 °C	5 °C	23,3 l/m²
Martitzena, 19	11 °C	2 °C	3,9 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

- ASTELEHENA**
21:00 MIR

- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi

- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

- EGUENA**
21:00 Gailurretik

- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Gailurretik

ASTEABIHITZETAN

Oztopo arkitektonikoak kentzeko oztopoak

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dio dirurik eman Arrasateko Udalarari herrian dauden hainbat oztopo arkitektoniko kentzeko. Arrasateko Udalak, bestalde, oso garrantzitsutzat jo du obra horiek egitea, eta, horregatik, errekurtsioa aurkeztuko du. Hain zuzen ere, laguntza horrekin Udalak alde zaharreko hesiz kanpoko hiritartze lanak egin gura ditu: hala nola Musakolako kiroldegia birmoldatu, oinezkoen zumardiaren Monterron-Erguin zatia egin, Udaletxean elbarriendako komunak jarri eta beste batzuk.

Elkarriren mahai-ingurua, bertan behera

Elkarrik, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimenduak, bertan behera utzi zuen martitzenean Arrasaten egin behar zuen mahai-ingurua. Horren arrazoia izan zen egunean bertan Sestaon alderdi sozialistako gazterietako kide Eduardo Madinaren aurka egindako atentatua. Horrela, gonbidatuta zegoen alderdi sozialistako kideak esan zuen ezin zuela etorri, eta beste alderdi batzuetako partaideek ez zuten egoki ikusi mahai-ingurua egitea. Baliteke mahai-ingurua datorren astean egitea.

Borroka Asteko kale bilkurak baimen barik

Segi eta Askatasuna erakundeek ilegalizazioa salatzen, Arrasateko gazteriak deitutako Borroka Asteko hainbat ekitaldi ezin izan dituzte egin. Horien artean, martitzenean, *Diario Vasco* egunkariaren egoitzaren aurreko aldean kale bilkura deitu zuten, baina ezin izan zuten egin, Herrizaingo Sailak ez zuelako baimenik eman. Arrazoi beragatik, atzo ere ezin izan zuten beste kale bilkura bat egin Alderdi Sozialistaren egoitzaren aurrealdean. Arrasateko gazteriak Ertzaintzaren eta EAJren jarrera salatu eta manifestazioak deitu ditu gaurko (egubakoitza), eguerdian eta iluntzean.



EDUKIONTZI BERRIAK HELDU DIRA HERRIRA

Debagoieneko Mankomunitatea edukiontzi berriak jartzen hasi zen herrian martitzenean. Guztira 170 edukiontzi jarri beharko dituzte gurean. Alde zaharrean ez dute edukiontzirik ipiniko. Hau irakurriko orduko, Mankomunitateak bukatuta izango du lana, eta guk, ohiturak aldatu behar.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Erretiratu beharrekoak

Beste gai askoren artean -horietako batzuk latzak-, gazteak, hirugarren adinekoak eta lotsabakoak izan dira albiste joan den astean. Batetik, Euskal Autonomia Erkidego-ko PPko, PSEko eta EAJko parlamentariak erabaki bat hartzeko zorian izan dira: parlamentari karguan bi urte igaroz gero, pentsio altuenak jasotzea. Ez da

harrizkoa izan erabakiak sortu duen iskanbila. Azkenean, alderdi politiko horiek banan-banan atzera egin dute, bat-batean asmatutako argudio batzuk direla medio. Bueno, ez da gauza makala izan! Ez naiz politikarien erantzukizun zintzoaz ari, ez horixe, baizik eta jendearen, herriaren, erantzunaz eta presioaz baizik. Zein hobeto joango litzateke guztia

herriak edo, behintzat, jende kopuru handiagoak onartzen ez dituen kontuak salatzen ohitura hartuko balu!

Bestetik, eta batez ere gazteei dagokienez, horra hor botilatzairen kontua. Madrilgo gobernuak kalean edatea debekatu du, baita hamazortzi urtetik beherakoei edariak saltzea ere. Gurean lege horrek ez dauka eragin handirik, baina zalantzak ditut ea zer ote den lege horrekin saihestu nahi dutena.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

MATRIKULAZIOEN SASOIA EI DA, BESTERIK EZ DA ENTZUTEN-ETA HEDABIDEETAN

Aste honetan, umeak ekarri ditugu *Asteko Irudia* ren atalera. Prentsa irakurri, telebista ikusi edo irratia entzutean, uneoro entzuten ditugu hainbat eskola edo ikastetxeren iragarkiak, batean eta bestean matrikula egin eta umea hara eramateko. Ezagun da ume kopurua aspaldi jaitsi zela, eta, oster, ikas-

tetxe asko daudela gure herrian. Horren ondorioz, lehia baino areago, nolabaiteko kompetentzia izaten dute euren artean. Hori horrela izanda, bakoitzak berea iragarri behar, eta, ahal den neurrian, umeak bere eskola erakarri. Bitartean, umeak euren gauzetan. Badakizue, umeak beti ume. //B.

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

MONTE Taberna

Astelehenetik aurrera, zure gosariak, geurean.

Kafea, salda, pintxoak, tortillak. Den-dena, goxo goxo.

08:00etatik aurrera zabalik.

Maalako Errabala 2 • Tel.: 943 79 20 56



GAIA/Harrobiak

San Josepeko harrobia ixteak, harrobien gaineko auzia piztu du berriro

UBANE MADERA

Joan den astean, San Josepe harrobia berbera izan genuen geurean, 2004an, legeak aginduta, harrobi izateari utzi beharko dio-eta. Horrek esan gura du 2004. urtetik aurrera Arrasaten bi harrobi besterik ez dela izango funtzionamenduan: Kanpanzar eta Kobate.

Ez dira asko, kontuan hartzen badugu herrian (34 kilometro koarduan) sei harrobi izan direla: Etxaluze, Altzaurti eta Santutxu (itxita daude), eta San Josepe, Kobate eta Kanpanzar (zabalik).


Baina gutxi ere ez dira. Hori salatu dute, behintzat, behin eta berriro, herriko ekologistek. 1993an hasi ziren gai horrekin kezkatzen. Jabier Abalde Ekologistak Martxan taldeko kideak adierazi digunez, "Gipuzkoa osoan 16 harrobi egonda Arrasaten hiru egotea oso indize altua da. Horrek atentzioa eman eta datuak jasotzen hasi ginen. Eta urte hauetan guztietan ikusi dugu, besteak beste, ez dutela Ingurumen Legea betetzen".

Enpresarien ikuspuntutik, Arrasaten harria azalean dago, lortzeko erraz; eta, gainera, kareharria (buztinez eta hareharriz nahastutako harria) eta hormigoia, biak lortzen dituzte hemen. Lanpostuak ere sortu dituzte. Gaur egun, 14-15 lagun ari dira harrobi bakoitzean, eta harrobiko beste 20 bat harrobitik ateratzen dutena garraiatzen. Halaxe adierazi digu JL Etxebarriak, Kanpanzar eta Kobate harrobie-tako arduradunak.

Baina bailaran -eta zehatz-mehatz, Arrasaten- harrobiak izateko arrazoi nagusia dagoen eskaera ei da. Etxebarriaren esanetan, "Arrasateko hiru harrobiok 1.000.000 tona harri ateratzen dugu urtero. Harri tratatua bere horretan saltzeaz gain, hormigoia eta karea ere egiten ditugu". Jeneralean, urteko 100.000 m³ hormigoia egiten dute eta 50.000 tona kare bizi eta kare hil. Horretarako, 300.000 tona harri erabiltzen dute. Eta, hortaz, urteko produktioak geratzen den 700.000 tona harri bailarako -eta bereziki, Arrasateko- errepide, urbanizazio eta antzerako lanak egiteko saltzen dute.

GAUR EGUNGO EGOERA KEZKAGARRIA

"Debagoienak behar duena besterik ez dugu produzitzen. Gure produktuak ez dira Arlabandik ezta Deskargatik harantz joaten, dena gureta da. Eta, gainera, kontsumoa urtero apurtxo bat igotzen da, bereziki, orain, autobidearekin; nahiz eta autobidea egiteko material asko obratik bertatik birziklatzen duten, guri



Harria, kareharria eta hormigoia ateratzen dituzte herriko harrobiek. Hiru harrobien artean, 1.000.000 tona harri urtero.

ARGAZKILARIA

eskatu barik. Eta, etorkizunari begira, Arrasaten dauden proiektuekin (Egitamu Orokorrean jasotakoak) eskaera ez da batere jaitziko". Horregatik, kezkatuta daudela adierazi digu Etxebarriak.

"San Josepe itxi egin behar dute; kontsumoa, berriz, ez da jaitzi behar, eta herrian geratuko garen bi harrobiek beste 15-18 urterako erreserba besterik ez dugu". Arrasaten -eta, oro har, Euskal

Herrian- dugun kontsumoa nabarmentzen du behin eta berriro Etxebarriak. "Euskal Herrian 14 edo 15 milioi tona harri behar dugu; Gipuzkoan lauzpabost milioi tona eta gure bailaran

"Debagoienak behar duguna besterik ez dugu produzitzen, eta kontsumoa urtero gorantz doa"

"Herrian geratuko garen bi harrobiek beste 15-18 urterako erreserba besterik ez dugu"

milioi bat tona. Adibidez, Urrakapeko askotariko erabilerarako eraikina egiteko, 1.000 m³ hormigoia behar da eta Cerrajerako etxebizitzetan 10.000 m³ hormigoia. Kontsumoa ez da jaitzi, baina, era berean, orain dela 20-25 urte ez dela harroberik zabaltzen. Gainera, bitartean itxi egiten dituzte. Eta beste bat abian ipintzeko 8-10 urte behar dira".

Bestalde, ekologistek egiten dizkieten kritiken ildoan, Etxebarriak dio harrobiak beti kaltegarri moduan aurkeztu izan dituztela, baina, kontsumitzeko orduan gizartea atzean geratzen ez den artean, kritikak hobeto aztertu beharko lituzketela.

Harrobien eraginagatik kezkatuta daude ekologistak

Herrian, ekologista taldeak 1993an hasi ziren, bereziki, harrobiengatik kezkatzen. Jabier Abalde Ekologistak Martxan taldeko kidearen esanetan, harrobi asko zeudela-eta hasi ziren gaia aztertzen. Eta, haren esanetan, azterketa horren lehenengo ondorioa da zabalik dauden harrobiek ez dutela ingurumena babesteko legerik betetzen. "1995ean, Energiaren Euskal Erakundeak zuzendariak adierazi zuen EAEko harrobien ia %100ak ez duela ingurumen araudia betetzen". Udalararen datuen arabera, iaz, harrobiei buruzko azterketan ikusi zen Kanpanzarkoak gorenean ezarrita zuen muga gainditu zuela. San Josepeko muga bera gaindituta dauka, bai hegoaldera, baita gorantz ere. Kobate-ri buruz Abalde adierazi du: "Lotsagarria da Kobateko erreka zelan dagoen". Urteak eman dituzte salatzeko harrobien ondorio kaltegarriak: lurzorua eta haren erabilera galtzea; kareharria dagoen tokietako baliabide hidrikoak suntsitzea; fauna eta flora desagertzea; eta, Kobate harro-

biaren kasuan, Leze-Txikiri eta hango ondare arkeologikoari kalte konponezinak eragitea. Hori guztia, ekologisten esanetan, ahaztu barik "harrobie-tatik ateratakoa azpiegitura handiak egiteko erabiltzen dela". Era berean, salatu dute harrobi guztiek animaliei, pertsoniei, landareei eta ibaiei kalte egiten dien hautsa sortzen dutela, eta leherketen ondorioz zarata handiak sortzen dituztela ere (Kobate harrobiaren kasuan, Garagartzatik gertu dagoelako). Eragin bisuala ere aipatu dute: "Batuetan balio handiko paisaietan jarduten dute harrobiek, Udaltzen moduan". Harrobiek botatzen dituzten isurkin, gas-olio eta gehigarri kimikoak ere azpimarratu dituzte. Bestalde, Abalde adierazi eman digunez, "Eusko Jaurlaritzak antolatutako Aire Zabalean egindako erauzketak lurraldearen antolamenduan izeneko jardunaldietan, Gipuzkoako harrobien jabeak batzen dituen erakundeak (ASFARGI) presidente Jose Santa Cruzek esan duenez, merkatuaren eskaintza

eskaria baino handiagoa da". Hortaz, ekologistek salatu gura dute harrobi larregi dagoela herrian, eta ez dagoela harrobi beharrik.

Udalaren jarrera salatu du Abalde: "Ez du zaindu Ingurumen Legea betetzea". Herritarren kexuei ere jaramonik ez diela egin salatu du. Eta, era berean, zera adierazi du: "Akaso orain harrobiak hasi dira legedia betetzen. Baina gu aztertzen ibili garen urte guztietan ez dute sekula bete. Udalak iaz emandako datuetan ere ikusten zen. Nabarmendu gura dugu ez gaudela harrobi guztien kontra, batzuen kontra baizik. Leku batuetan ez litzateke harroberik egon behar: Kanpanzarren, Udaltz magalean; Kobaten, Garagartzatik eta Leze Txikitik gertu. Edozein lekutan askoz gehiago babestuko litzateke Leze Txikin dagoen aberastasun arkeologikoa".

Eskatzen dute Kanpanzar eta Kobate ixtea, itxita daudenak berreskuratzea, eta San Josepekoak indarrean dagoen legedia betetzea.

Hasi dira ur zikinak batzeko kolektoreko lanak egiten Zigorrolan

UBANE MADERA

Oraingo astean, Musakolako San Isidro elizaren parean errepidearen noranzko bat itxi dute. Hain justu, herriko ur zikinak batzeko kolektorearen lanak egiteko itxi dute bidea. Ondorioz, ibilgailuak Musakola auzoan zehar sartu behar dira Arrasateko hirigunera.

Aspalditik ari dira herrian kolektorea eraikitzeko lanak egiten. Gunea egiten dute, eta oraingo astean, Musakolan hasi dira. Horrexegatik eten behar izan dute errepidearen zati bat. Gutxi gorabehera, pare bat astez jardungo dute han.

Gero, aurrez ikusitakoaren arabera, auzoan gora egingo dute, Santa Teresa kalerantz. Goranzko bidean, Musakolako kiroldegitik gertu dagoen aparkalekuan eta Gernika oinezkoen zumardiaren bidegurutzean ere egingo



ALEX AZKARATE

Bederatzi milioi euro pasatxoko inbertsioa egingo du jaurlaritzak kolektorean.

dituzte kolektoreko lanak.

HAMASEI HILABETE

Nafarroako Mariezkurrena

enpresa ari da lanean. Iaz, otsailan, hasi zen lanean, eta aurrez ikusitakoaren arabera, lau hilabete barru bukatuko ditu lanak.

Erlojua dagoen Cerrajerako eraikina babesteko eskaera egin dute

UBANE MADERA

Erlojua dagoen Cerrajerako eraikina babesteko eskaera egin diote Udalari zenbait herritarrek. Uste dute eraikina "orain gutxiko garai bateko bizimoduaren eta industria jardueraren ikurra" dela.

Arrasateko Egitamu Orokorrari aurkeztutako helegiteen artean, Erlojua dagoen Cerrajerako eraikina babesteko eskaera egin diote Udalari zenbait herritarrek. Hain justu, "fatxada nagusiaren mantentze eta kontserbaziorako baita fatxada horrek bereak eta adierazkorrak dituen beste elementu batzuk ere: farolak, burdinsareak, sarreraren diseinuan, erlojua, fatxadaren apaindura", eta abar. Uste dute, Udalak Egitamu Orokorrean aurrez ikusi duen moduan, eraikina botatzeko proposamenen "ez direla kon-



ARTXIBODA

Altxor historikoa dela uste dute.

tuan hartzen eraikinaren balio historikoak, ezta haren balio arkitektonikoa eta estetikoa ere, eta eraikin horrek izan litzakeen erabilera ere ez". Eta gaineratu dute Egitamu Orokorrean pro-

posatzen den erabilerak ez duela leku hura hobetzen.

JENDAURREKO AURKEZPENA

1939an eraiki zuten, Astiazaran arkitektoaren proiektuaren arabera. Bulegoetako eraikina zenarekin batera, Union Cerrajeratik zutik geratzen den bakarra da. Hori dela eta, uste dute "gure herriaren orain dela gutxiko historiaren kapitulu nagusiaren ikurra dela: bereziki lanaren gunea izan zen, gizarte mugimenduaren sorlekua, gaur egun Arrasateko sozio-ekonomikoa dena sortu zuena, sirena hotsaz eta gaur geldi dagoen erlojuaren orratzei begira jaio, hazi eta zahartu diren hainbat belaunaldiren bizitzaren protagonista".

Eskaeraren zergatia azaltzeko, astelehenean batzarra deitu dute, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Interesa duen edozeinendako egin dute deia.

LABUR


Cerrajerako industria hondakinen azterketen emaitzak aurkeztu dizkiote Udalari

Unión Cerrajerako industria hondakinen azterketaren emaitzak jasotzen dituen txostena aurkeztu diote Arrasateko Udalari. Horren arabera, 430m³ lur kopuru erretiratu egin beharko dituzte, oso kutsatuta daudelako; Aprendiz Eskolako transformadorea ere hor sartuta dago. Beste, 190 m³ ere erretiratuko dituzte, dezente kutsatuta daudelako; Mecánicas Arrasate enpresa dagoen lekuan izango da hori. Eta, Fundizioaren antzinako lur eremuan ere erdi mailako kutsadura duten 1.600 m³ lur kopuru erretiratu beharko dute. Deskontaminazio-lanen kostua 363.948'52 eurokoa da. Ingurumen Sailari diru laguntza eskatuko zaio horretarako.

Beste bi lekuri espedientea ireki die Udalak, sonografoen emaitzak jaso eta gero

Arrasateko Udalak beste bi lekuri espedientea ireki die, sonografoek emandako emaitzak ikusi eta gero: Lorategi tabernari eta Jolas Leku izeneko jolastokiari, hain zuzen ere. Iturriotz kalean dagoen Lorategi tabernari berandu ixteagatik eta legeak ezartzen duen baino zarata handiagoa aterateagatik zabalduko die espedientea. Eta Jolas Leku jolastokiari dagokiona baino beranduago ixteagatik zabalduko diote espedientea.

Leku bi horietan moduan, fotokopiak ateratzen duten Kopy Prest dendan ere izan dute sonografoa ipinita, baina jasotako emaitzak legeak baimentzen duenaren arabera izan dira, hortaz, Udalak ez dio espedienterik zabalduko Kopy Prest dendari.



Gotzaina Arrasaten da egunotan

Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ibili eta gero, martitzenean hasi zuen bisitaldi pastoralari Arrasaten Juan Maria Uriarte gotzainak. Kontzezinoko mojen komentuan izan zen, baita Iranen gertatutako hegazkin istripuan hildako Jesus Olaziregin sendiarekin ere. Edozelan ere, datozen bi asteotan Arrasaten izango da, eta leku ugari bisitatzeko asmoa du.




KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

PUB
HAIZEA



ELKARRIZKETA

JABIER MADRAZO/ETXEBIZITZA SAILBURUA

“Laster, oso prezio merkeetan, etxebizitza asko aterako ditugu”

UBANE MADERA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Jabier Madrazo Mondragoen izan zen atzo. Herriko alderdikideekin batera, etxebizitzaren arazoa aztertu zuen. Hemen zegoela aprobetxatuz, galdera batzuk egin genizkion:

Zein da Arrasateko egoera?

Urte batzuetatik hona, Eusko Jaurlaritzaren eta Arrasateko Udalaren arteko harremana nahiko ona izan da. Lankidetzan, Cerrajerako babes ofizialeko etxebizitzak ari gara eraikitzen. Garrantzi handiko ekimena da. Lortu gura dugu herriaren erdialdean degradatuta dagoen gune bat birgaitzea; eta lehen industriarako erabiltzen zena etxebizitzak egiteko erabiltzea. Era berean, gehien behar duten herritarrendako eskaintza da.

Etxebizitza Sailak 308 etxebizitza eraikiko ditu: 100, prezio merkeetan alokatzeko (14.000-30.000 pezetaren artean); eta 208 babes ofizialekoak izango dira.

Noiz hasiko dira eraikitzen?

Urte bukaeran edo datorren urte hasieran, inguruaren urbanizazio lanen arabera. Espero dugu ekimen horrek eta Udala bultzatzen ari den beste ekimen batzuek Arrasaten dagoen arazoa apurtxo bat konpontzen lagunduko dutela. Gaur egun, 1.969 lagunek egin dute etxebizitza eskaera Etxebiden, eta 1.391 Arrasaten erroldatuta daude.

Nabarmenezkoa da Udalaren eta Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren arteko lankidetzak. Era gin zuzena izango du herritarrengan. Gainera, alde zaharra



ARTXIBOA

zaharberitzen ari den enpresarekin ere harremana dugu; hutsik dauden etxeak erabiltzeko bideak bultzatu gura ditugu.

Zelan dator etorkizuna?

Prezioak egonkortuz joango dira aurtin; eta merkatu libreko prezioak mugatu ahal izango ditugu, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen ditugun neurrian. Zenbat eta gehiago egin, orduan eta

hobeto neutralizatuko dira gainerako etxebizitzaren prezioak.

Zer gomendatuko zenieke zer egin ez dakitenei?

Esperantzarik ez galtzeko. Egingo dugun lanarekin fidatzeke. Espero dugu laster, oso prezio merkeetan, etxebizitza asko aterako ditugula. Eta, bereziki esan gura dut gazteen eskariak betetzen saiatuko garela.

Herriko Udaltzaingoa lantaldea osatzen ari da

UBANE MADERA

Aspalditik dago Arrasaten udaltzainek gaueko txanda egiteko asmoa. Gainera, azkenaldian herrian lapurreta kopurua igo egin dela-eta, segurtasun handiagoa ezartzeko eskaria jaso du Udalak.


Hori dela eta, udaltzainek gaueko txanda lehenbailehen abian ipini gura du Udalak. Horixe adierazi digu Zerbitzu Saileko buru Jose Mari Urizar Ametzu-k. Baina, hori egin aurretik, lantaldea gaur egungo beharretara egokitu beharko dute. Batetik, lantaldea osatu behar dute, udaltzain gehiago behar dira-eta. Eta, bestetik, udaltzainek prestakuntza jasoko dute.

HOGETA ZORTZI UDALTZAIN BEHAR DIRA

Gaur egun, 15 udaltzain daude. “Baina horietatik bi oso baja luzearekin daude. Eta udaltzainburua eta merkatuan dagoena kenduz gero, 11 udaltzain geratzen dira. Horiek egiten dituzte goizeko, arratsaldeko, eta asteburuetako

zerbitzuak”. Jose Mari Urizarrek adierazitakoaren arabera, iaizko eta aurtengo aurrekontuekin guztira 28 udaltzaineko lantaldea lortzeko langileak hartuko dituzte. Bestalde, gaueko txanda betetzeko, prestakuntza ere behar dute udaltzainek: “Prestakuntza ikastaroak egiteko itzaroten gaurde, eta ikastaro horiek egiten dituztenean, gaueko txanda abian ipiniko dugu”. Ikastaroak Eusko Jaurlaritzaren bitartez egiten dira. “Hasiera baten 25 orduko ikastaroak izango dira, eta aurrerago ikastaro gehiago egingo dituztela gaineratu du Urizarrek: “Hiru hilabeteko edo hilabete eta erdiko ikastaroak ere badaude”.

Aurrez ikusitakoaren arabera, hiru udaltzain ibiliko dira gauetz: bi, herrian bueltaka eta hirugarrena, Udaltzaingoa. “Laubideko aparkalekuko hesia ere zainduko du bulegoan geratzen denak”. Horrela, Urizarrek ziurtatu digu uda baino lehen herriko udaltzainek gaueko txanda beteko dutela. “Ertzaintza ere ibiliko da, orain arte moduan, baina bere lanak egiten”.



UBANE MADERA

Gaur egun, hamabost udaltzain daude, baina guztira 28 lagun behar dira.

**Parques
y Jardines**

Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



KENCI ARRASATEKO MUTILAK, LONTXO TABERNAN

Oraingo zapatuan, Kenci Arrasate saskibaloitaldeko jokalariek Lontxo tabernan izango dira, zerbitzari lanetan. Ekimen hori taldearendako dirua ateratzeko egingo dute, izan ere, gure kirol taldeen egoera ekonomikoa ez da askok nahiko

luketena bezain ona. Hortaz, oraingo zapatuan Lontxo tabernara hurreratuko zaretenoi, jakin ezazue musikarik onena eta giro jatorrena aurkituko dituzuela bertan. Horrez gain, taldeari laguntzeko beste aitzakia bat izango duzue.



NOLAKO EGURRA, HALAKO EZPALA

Marina azkar hasi da gurasoen bidea jarraitzen. Aita eta ama, Joxean eta Bea, aspalditik ari dira *kirol* hori praktikatzen. Bea, gainera, Euskadiko txapel-duna izan zen orain urte batzuk, eta Marinarak, antza, bide bera jarraitu gura du. Gaztetxo, arrasatear horrek eskalatzeko gaitasunak dituela argi erakutsi zuen orain dela hiru aste Gasteizen izandako Eskalada Txapelketan. Hala ere, oraindik ikusle izaten jarraitu beharko du.



OTALORA KALEKO FAROLETAN, ZAPATILAK ZINTZILIK ?

Otalora kalean dauden hainbat faroletan aspalditik zapatila mordoa daude zintzilik. Horren zergatia oraindik ez dago argi, eta hainbat bertsio entzun ditugu. Batzuek diotenez Estatu Batuetan ohitura da kaleko faroletan zapatilak zintzilikatzea, inguru hori norena den adierazteko-edo. Beste batzuek diotenez, berriz, parranda egun batan, giroa epel-epel zegoenean, zapatilak faroletan zintzilikatu zituzten lagun batzuek. Zuetako inork horren arrazoia zehatz-mehatz baldin badaki, eskertuko genioke besteoi ere argitzea. Bitartean...



BRETOIAK GUREAN

Aurreko baten, eskertzeko moduko bisita izan genuen. Britainiako Karaez herriko hainbat lagun izan ziren gurean. Karaez eta Oiartzun herriak senidetuta daude, eta Euskal Herrira etorrita Arrasateraino

hurreratu ziren, besteak beste, ARRASATE PRESS, Goiena Telebisita eta Arrasate Irratia ikustera. Euskararen inguruan interes handia agertu zuten eta hori eskertzekoa da. Kenavo (Agur), eta beste bat arte!



Lehenengo zatia parekatua izan zen, baina bigarrean AGR Arrasate nagusitu zen.

OXEL EROSTARBE

ESKUBALOIA

Arrasateko derbian, kostata, baina AGR Arrasate taldea nagusitu zen

Arrasate Eskubaloj Taldeak Euskal Federazioaren portaera salatu gura du

XABIER URZELAI

Euskal Federazioarekin izan diren tirabirekin, joan den asteko derbia bigarren mailan geratu da. AGR Arrasate taldea zigortu egin dute. Hala ere, etxeok ez daude konforme erabaki horrekin.

Arrasate Eskubaloj Taldea ez dago ados Euskal Federazioa egiten ari den lanarekin. Jesus Mari Herreroaren esanetan, gauza asko daude salatzen, eta Arrate taldeak Euskal Federazioarekin dituen harremanak ez dira nor-

malak. Arratek, orain arte, gura izan duena egin du eskubaloj ligan, Euskal Federazioaren babesarekin, jakina.

AGR Arrasatek Arrateren aurka atzeratutako partidu bat zeukan jokatzeko. Arratek partidu egubakoitzean jokatu gura zuen, baina Arrasatek ezetz esan zuen. Horrela, Euskal Federazioak partidu egubakoitzean jokatzera derrigortu zuen Arrasate, eta ordutegi aldaketa horren notifikazioa Ertzaintzaren bidez iritsi zitzaion Jesus Mari Herrero Arrasate Eskubaloj Taldeko arduradunari, etxera. Herrero-

ez zuen ezer sinatu, eta AGR Arrasate Taldeak zigorra jaso du; bidezkoa ez den zigorra, hain zuzen ere. Arrasate ez da Arrate taldearekin arazoak izan dituen talde bakarra, eta, horrenbestez, Euskal Federazioarekin arazoak izan dituen talde bakarra.

Beste hainbat talde ere zenbait arazo izan dituzte, bai Eibar-ko Arrate taldearekin baita Euskal Federazioarekin ere. Arrasatek ez du onartuko ezarri dioten zigorra, eta salaketa jarriko dute Kirol Justizia Batzordean. Etxekoek igoera fasea jokatzeko aukerak galdu dituzte.

Jorge Sánchez karateka hirugarren izan da Euskadiko Txapelketan

XABIER URZELAI

Hogei urteko Jorge Sánchez arrasatearra Gipuzkoako txapeldun izan berri da, eta joan den asteburuan, Euskadiko Txapelketan izan zen. Txapelketa Irungo Artaleku kiroldegian jokatu zen, eta Jorgek hirugarren postua esku-

ratu zuen 70 kilo azpiko *kumite* modalitatean.

Lehenengo borrokaldian Jorgek zortea izan zuen, eta borroka egin barik bigarren borrokaldian pasatu zen. Bigarren borrokaldian 2-0 galdu zuen, gerora txapelduna izan zenaren kontra. Azkeneko borrokan 2-0 irabazi

zuen, baina sudurrean kolpe gogor bat hartu zuen, eta asko kostatu zitzaion hirugarren postu hori defendatzea.

Jorgek oraingo asteburuan Espainiako Txapelketara joateko lehenengo aukeraketa proba gainditu behar du. Aukeraketa proba Laudion izango du.

Igoera faseko partidu kaskarrena egin zuen Kencik

XABIER URZELAI

Ezin esan Kenci Arrasate bolada onean dagoenik. Taldea ez da bere maila erakusten ari, eta arrasatearrek zortea ere ez dute lagun. Hainbat jokalarik min hartuta daude, eta oraingo astebururako batzuk errekeperatzea izango da helburua.

Kenci Arrasatek Deustuko Fineko La Salle taldearen kontra jokatu zuen zapatu arratsaldean, eta arrasatearrek 85-53 galdu zuten. Ez zen arrasatearren partidurik onena izan. Lehenengo laurdenera bukatuta Deustukoek zortzi puntuko aldea zuten.

Bigarren laurdena erabakigarria izan zen; izan ere, arrasatearrek orduan galdu zuten partidu. Ez ziren fin ibili defentsan, ezta erasoan ere, eta bizkaitarrek 19-8ko partziala egin zuten. Hirugarren laurdenean ez zen Kencikoen erreakziorik izan;


alderantziz, bizkaitarrek alde handiagoa hartu zuten (67-34).

AZKEN LAURDENEAN, EZIN EZER EGIN

Azken laurdenean ez zegoen ezer egiterik. Bi taldeak 10 minutuak ahalik eta azkarren pasatzeko itxaropenarekin kantxaratu ziren, eta bizkaitarren entrenatzaileak jokalarik gazteei minutuak emateko aprobetxatu zuten. Kenci Arrasatek, berriz, nahiko lan zeukan partidu amaitzeko, hainbat jokalarik min hartuta amaitu zuten-eta. Jagoba Gamarrak, Iratitz Elortzak eta Iker Errastik ezin izan zuten partidu jokatu. Hori gutxi balitz, Jokin Laspiurrek eta Mikel Pagaldak partiduan kolpe batzuk jaso zituzten, eta ezin izan zuten norgehiagoka amaitu.

Kenci Arrasatek bihar jokatuko du, Iturripen, Donostiako Santo Tomas Lizeoaren kontra. Ea partidu horretarako jokalarik batzuk errekeperatzen diren.

FOTOKIROLA



Pilotan, Aretxabaletak 2 Arrasatek 1

Martitzen arratsaldean, Debarroko Pilota Txapelketako partiduak jokatu ziren Aretxabaletan. Kadete mailan, Jiménezek eta Gozalok 11-22 irabazi zieten Aretxabaletako pilotariei. Arrasatearren garaipen bakarra izan zen. Gazte mailan izan zen emozio handiena; Zuazuak eta Agirrek 22-21 galdu zuten Aretxabaletako bikotearen kontra. Eta senior mailan, Zugasti eta Errasti mondragoetarrek Aretxabaletako Errasti anaien kontra jokatu zuten. Aretxabaletarrak nagusitu ziren (22-16). *M.U.*

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Raul Leiba Mondrako entrenatzaileak jokalarien eta jarraitzaileen jarrera azpimarratu zuen partiduaren amaieran.

JULEN IRIONDO

FUTBOLA

Mondra futbol taldeak bederatzi jokalarirekin ere irabazi egiten du

Oraingo asteburuan, etxekoek derbia izango dute Bergaran

XABIER URZELAI

Mondrak irabazten jarraitzen du, baina goikoak harrapatzea gaitza da, haiek ere ez dutelako kalerik egiten. Zapatuan, sekulako erakustaldia egin zuen Mondrak: bederatzi jokalarirekin 1-0 irabazi zuen.

Azkeneko partiduetan etxekoek ez dute zorte handirik izan epaileekin. Eta kasualitatea izango da, baina epaileen erabakiak normalean etxekoen kalterako izaten dira. Orain dela aste bi, esaterako, Seguran izan zirenak ez ziren epailearen lanarekin batere gus-

tura geratu, eta joan den zapatuan Atxabalpen izan zirenak ezin zuten sinetsi ere egin ikusten ari zirena. Mondrak bederatzi jokalarirekin jokatu zuen bigarren zati osoa. Epaileak Ekain eta Alkorta egotzi egin zituen, protesta egiteagatik. Harritzekoa bi horiek protesta egiteagatik kanporatuak izatea.

Horrela, bigarren zatian Muxik lehenengo zatian egindako golari eusten ahalegindu ziren, baita lortu ere.

DAGOENKO SEIGARREN POSTUAN

Etxeko taldeak bolada ona darma, baina goiko taldeek ez dute

kalerik egiten, eta aldea murriztea ez da lan erraza. Pedrusko eta Intxurre atzean utzi ditu Mondrak dagoeneko, eta hurrengo helburua bi puntura dagoen Orioko taldea harrapatzea izango da. Horretarako, Bergararen kontra irabaztea ezinbestekoa izango da, nahiz eta partidua kanpoan izan.

MARTXOA, ERABAKIGARRIA

Mondrak martxoko hilabetea aprobeztatu beharko du goiko postuetara iritsi gura badu. Hilabete horretan goiko postuetan dauden Amaiak Bat, Orioko eta Zumaiako taldeen kontra jokatu beharko dute arrasatearrek.


ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldeak ezin izan zuen Gaztedi mendean hartu

Arrasateko Errugbi Taldea sailkapeneko goiko postuetan dago, baina azkeneko jardunaldietan etxeko taldeak behera egin du. Joan den asteburuan, Arrasateko mutilek Gaztedi taldearen kontra neurtu zituzten indarrak.

Gaztedi taldea sailkapeneko erdialdean dago eta irabazteko moduko partidua zen. Hala ere, zapatuan Garagartzako zelaian jokaturako partiduan etxekoek ez zuten orain arte erakutsitako maila erakutsi, eta kanpotarrak nagusitu ziren (11-19).

FOTOKIROLA



Arrasateko gimnastak Bergaran domekan

Oraingo asteburuan, Eskola Arteko B Mailako Gimnasia Txapelketa izango da Bergaran. Txapelketan Gipuzkoa osoko gimnastak izango dira. Arrasate Dragoi Gimnasia Taldetik hamai-ka gimnasta joango dira txapelketara. Alebin mailan bost arrasatear izango dira, eta banakako modalitatean lehiatuko dira. Infantil mailan, berriz, beste sei gimnastak hartuko dute parte. Gimnasta horiek banaka eta taldeka arituko dira. Banakako proban sokekin arituko dira, eta taldeka uztaiekin eta pilotekin ikusiko ditugu Bergaran. /XABIER URZELAI



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Debagoieneko pilota topaketak izan ziren Uarkapen martitzenean

XABIER URZELAI

Aurten ere, otsailean eta martxoan, Debagoieneko pilota eta herri kirol topaketak egingo dira. Iaz, ibarreko 700 ikaslek hartu zuten parte topaketa horietan. Martitzenean, gazteak Uarkapen izan genituen, kirol hori hobeto ezagutzeko asmoz.

Martitzenean, goizeko hamarretatik aurrera, Uarkape pilotalekuan sekulako pilota festa izan zen. Izan ere, Arrasaten hasi ziren Debagoieneko pilota topaketak, eta ondorengo egunotan Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan izango dira.

Arrasaten hainbat eskolatako umeak izan ziren kirola egiteko gertu. Arizmendiko eta Musakolako ikasleak izan ziren Uarkapen, guztira 122 gazte. Hasieran, pilotan ikasteko hainbat joko egin zituzten, eta gero, ikasitakoa praktikan jartzeko lehiaketak egin zituzten. Lehiaketak hasi zirenean, harmailetan urduritasuna nabari zen: eskola bakoitzeko ikasleek euren taldeen eta pilotarien alde egiten zuten.

Iaz, pilota eta herri kirol topaketek sekulako arrakasta izan zuten. Debagoieneko 700 bat ikas-



AMAGOIA LASAGABASTER

Harmailetan emozioa izan zen nagusi pilota txapelketan.

lek hartu zuten parte. Oñatin izan zen gazte gehien iaz, guztira 149 ikasle ibili ziren-eta. Arrasaten ehun bat ikasle izan ziren iaz. Aurten, berriz, 122 ikasle izan dira. Aurtengo helburuetako bat iazko parte hartzea hobetzea izango da, eta Arrasaten, behintzat, helburu hori bete egin dute.

HERRI KIROLAK

Pilota topaketez gain, otsailaren 26tik martxoaren 12ra bitartean,

herri kirol topaketak izango dira. Topaketa horiek Aretxabaletan hasiko dira, eta Arrasaten amaitu. Egun horietan, bi herri horiez gain, topaketak Oñati eta Bergaran ere izango dira.

Topaketa horietan Arrasateko ikastetxe guztiek parte hartu ahal izango dute. Iaz, Gipuzkoan guztira 78 ikastetxetako 2.525 ikasle egin zuten bat egitasmoarekin. Ea aurten zenbaki horrek gora egiten duen.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Fragué Gol	7-4
Bazar Toki On - Estu Ta Larri	4-3
Saukelu Scream - Goma2	7-5
Aurrera Bolie - Txotx	11-0
Rayo Aldeano - Maldifa's	4-1
Chapime Dribling - Lasagabaster	6-6
Bikain Akademia - Makanaki	2-1
Usotz Potroak - Iritzuta Taberna	2-5
Sukelu Scream - Estu Ta Larri	6-3

B MULTZOA

Irati STS - Komando Alpargat	6-3
Bin Laden - AT Celaya	4-6
AC Surcos - D.D.K.	8-2
Etzerat - I.K.P.	8-4
Koka Junior Basati - E.G.D.	1-0
Abocajarro - Etxinai	5-4
Full Duplex - Azkena You Know	2-7

PARTIDUAK

OTSAILAK 23, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Saukelu Scream - Maldifa's, D.D.K
10:00: K. Alpargat - D.D.K, Maldifa's
11:00: Lasagabast - Aurrera Bolie, K.Alparg
12:00: Betrayer - Estu Ta Larri, Aurrera B.
13:00: KJ Basati - Etxinai, Betrayer
14:00: Goma2 - Fragué Gol, Etxinai
15:00: Bin Laden - I.K.P, Fragué Gol
16:00: Etzerat - AKTA, Bin Laden
17:00: Makanaki - Usotz Potroak, AKTA
18:00: Irati STS - AT Celaya, Makanaki
19:00: Iritzuta Tab - Chap.Dribling, AT Celaya

OTSAILAK 24, DOMEKA

10:50: Bazar Toki On - Txotx, Abocajarro
12:00: Abocajarro - Full Duplex, Bazar T.O
13:00: Bikain Akad - Usotz P, Full Duplex

Atsedena: AC Surcos, You Know Azkena, Rayo Aldeano

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	23	13
2. Iritzuta Taberna	22	13
3. Chapime Dribling	21	13
4. Goma2	20	13
5. Betrayer	18	13
6. Aurrera Bolie	14	13
7. Rayo Aldeano	14	13
8. Usotz Potroak	14	13
9. Saukelu Scream	12	13
10. Lasagabaster	11	13
11. Estu Ta Larri	10	13
12. Makanaki	8	12
13. Bazar Toki On	7	13
14. Fragué Gol	6	13
15. Txotx	4	13
16. Maldifa's	2	13

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	24	13
2. Etzerat	22	12
3. Irati STS	20	12
4. AT Celaya	20	12
5. AC Surcos	17	12
6. I.K.P.	12	12
7. Bin Laden	11	12
8. Koka Junior Basati	10	12
9. D.D.K.	9	11
10. Abocajarro	9	12
11. Komando Alpargat	9	12
12. E.G.D.	6	12
13. AKTA	6	12
14. Full Duplex	4	12
15. Etxinai	1	12

LEHENENGO FASEA AMAITZEAR

EGD TALDEA KALERA BOTA DUTE

EGD taldea Zaldibarko txapelketatik kanpo geratu da. Izan ere, joan den asteko partidura lau jokalaririk bakarrik aurkeztu ziren. Talde horrek azken asteotan oso jokalaririk gutxirekin jokatu ditu partiduak, eta azaltzen ziren jokalariek sufritu baino ez zuten egiten. Hurrengorako, hobeto aukeratu taldekideak.

AZKEN PARTIDUETAKO ESPRINTA

Taularen erdialdean dauden taldeek azken esprinta egin beharko dute oraingo asteburuan eta hurrengoan. Lehenengo fasea amaitzeko jardunaldi bi besterik ez da geratzen, eta partidu erabakigarriak izango dira. Oraingo asteburuan, Usotz Potroak taldeak partidu bi jokatu beharko ditu, eta ezinbestekoa izango du bat, behintzat, irabaztea.

FOTOKIROLA



Mikel Bergarak eta Xabier Otañok, argazki onenen saria

Mondragon Unibertsitateak antolatutako kirol argazki lehiaketaren sariak Mikel Bergara arrasatearrak eta Xabier Otaño elorriarrak eskuratu zituzten. Guztira 20 lan aurkeztu ziren kirol argazki lehiaketara, eta kirol argazki onenaren saria Mikel Bergarak eskuratu zuen; 150 euro poltsikoratu zituen. Xabier Otañok bilduma onenaren saria eskuratu zuen, eta 180 euro jaso zituen. Argazki lehiaketara Arrasateko eta Oñatiko fakultateetako ikasle eta irakasleak aurkeztu ziren. Guztira sei bilduma, hamar argazki koloretan eta lau argazki zuri-beltzean aurkeztu zituzten. Xabier Otañok ziklo-kroseko argazkiak aurkeztu zituen; Mikel Bergararen argazkia, berriz, goiko aldean daukazu. Koloretan are politagoa da. / XABIER URZELAI

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara - Mondra	Erregionala. Zapatuan. 16:15. Agorrosin.
Arrasate - Beasain	Ohor gazteak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpe.
Mariaren Bihotza - Arrasate	2.mailako gazteak. Domekan. 15:00. Matigoxo.
Arrasate - Añorga	Ohorezko kadeteak. Domekan. 11:30. Atxabal.
Ordizia - Arrasate	Infantilak. Zapatuan. 11:30. Ordizia.
Amaikak Bat - Arrasate	Neskak. Domekan. 16:30. Deba.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Santo Tomas Lizeoa	Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripe.
Kenci Arrasate - STL Gaztelu	23 urte azp. Zapatuan. 16:00. Musakola.

ESKUBALOA

Arrate - Arrasate	Seniorrak. Zapatuan. 17:00. Eibar.
-------------------	------------------------------------

Aieru - AGR Arrasate

Seniorrak. Zapatuan. 17:00. Lezo.	
AGR Arrasate - Loiola	Seniorrak. Domekan. 12:00. Iturripe.

ERRUGBIA

Getxo - Arrasate	Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Getxo.
------------------	------------------------------------

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Pedrusko	1-0
Ohor. gazte maila: San Marcial - Arrasate	1-0
2. mailako gazteak: Arrasate - Dunboa	1-3
Neskak: Bergara - Arrasate	0-3
Infantilak: Arrasate - Real Union	0-1

SASKIBALOA

Junior mut: Kenci Arrasate - Easo	47-90
Junior neska: CD Intern - Kenci Arrasate	76-17
Kadete mut: Kenci Arrasate - Ordizia	56-40

ERRUGBIA

Seniorrak: Arrasate - Gaztedi	11-19
-------------------------------	-------

ELKARRIZKETA

IRAITZ AGIRRE/IDAZLEA

“Egia esan, gehienetan, triste samar nagoenean jartzen naiz idazten”

IKER BARANDIARAN

Iraitzek hamazortzi urte ditu, Hainbat literatura lehiaketatan jaso ditu sariak, eta Maritxu Kajoiaren 25. urteurreneko liburua egiten ere ibili zen. Orain, Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan Debagoieneko saria jaso du.

Noiz eta zelan hasi zinen idazten?

Umetatik izan dut idazteko zaletasuna. Beti gustatu izan zait. Orain dela urte asko, lagun batek Urruzuno lehiaketa irabazi zuen eta saria -bidaia bat- oso erakargarria iruditu zitzaidan. Horrela, kanpoko lehiaketetan parte hartzea animatu nintzen. Aurrez, umetan, AEDko lehiaketan hartzen nuen parte.

Zer idazten duzu, batez ere?

Ipuinak. Poesia idaztea ere gustatuko litzaidake, baina gauza laburrak idazteko ez dut balio.

Eta zer irakurtzen duzu?

Denetatik apur bat. Eleberri historikoak oso gustuko ditut... Sasoi batzuetan euskaraz, beste batzuetan gaztelaniaz.

Baina euskaraz idazten duzu, ezta?

Sasoi baten, gaztelaniaz idazten ibili nintzen, baina ez dut ondo idazten, eta utzi egin nuen. Bizimodua euskaraz egiten dut.

Hainbat lehiaketatan jaso dituzu sariak, ezta?

Urruzuno lehiaketan lau urtean jaso ditut sariak; bestalde, Tene Mujika lehiaketan hamazortzi urtetik beherakoendako accessita; Resurreccion Maria Azkueren saria irabazi nuen; AEDkoa behin irabazi eta beste behin finalista; eta, azkenik, Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan, Debagoieneko saria.

Eta zertaz idazten duzu, oro har?

Burura etortzen zaidanaren gainean idazten dut. Normalean, frustrazioak, pertsona bat larregi maitatzearen obsesioa, pertsona bat galtzearen gaitza, gerrak... Ia beti kontu tristeak. Egia esan, gehienetan, triste nagoenean idazten dut.

Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketako gaia gustuko duzu?

Bai, joko handia ematen du. Hitz politikak aukeratu eta gaiari buelta batzuk ematea oso gustuko dut. Irabazi duena asko gustatu zait; gainera, Zarauzko euskararen idatzita dago.

Eta zuk, mondragoeraz ala euskara batuan?

Nik euskara batuan idazten dut beti, hemengo euskara ez dakidalako. Gure etxean Antzuolako euskara darabilgu, eta mondragoeko euskara txarto ez era-



IKER BARANDIARAN

“Urruzuno sariak erakarri ninduten, eta lehiaketetan sarriago aurkeztera animatu nintzen”

biltzearren, gurago dut batuan egitea.

Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketaren ildora bueltatuz, badaukazu gida-baimenik?

Ez daukat, baina ateratzeko asmotan nabil. Izan ere, aspaldi apuntatu nintzen, baina alfer samar nabil.

Baina, oraindik, Leioako Unibertsitateko autobusean joaten zara, ezta?

Badakit nora joan gura duzun. Bilbotik Leioara joateko hartzen dudana autobuseko bidaian oinarritu nintzen amodiozko gutuna idazteko orduan. Zein gairi buruz idatzi pentsatzen ari nintzen, eta, bat-batean, autobusean mutil bat ikusi nuen.

“Musika oso gustuko dut. Sasoi baten, gitarra espainola hartu eta kantuak egiten nituen”

Gaia aldatuz, Leioan zabil-tza Kazetaritza ikasten. Euskal Filologia ikastea ere bururatu zitzaizun?

Bai, zalantzak izan nituen. Hainbat ikasketa egitea bururatu zitzaidan: Filologia, Zientzia Politikoak, Soziologia, Kazetaritza... Azkenean, Kazetaritza aukeratu nuen. Idaztea oso gustuko dut eta, gainera, muturra sartzeko ohitura ere badaukat.

Idazteaz gain, beste zaletasunik badaukazu?

Antzerkian ibili nintzen, baina ez dut horretarako balio. Bestalde, musika asko gustatzen zait. Gitarra espainola jo eta abestu egiten dut batzuetan. Kantuak egitea oso gustuko dut, kantautoreen ildokoak.

kzjaieguna

Ongietorri KZJaiegunera!!

Bilboko Nazioarteko Erakustazokan

2002.eko Otsailaren 23an

10:00etatik 22:00etara

JOSTETA-JARDUERAK

JOKO ELKARRERAGILEEN EREMUA
Gameboy Color eta Gameboy Advance-rako azken-azken bideojokoak.

ORDENAGAILUEN EREMUA
36 gune dituzu Internetera konektatuta, sarean nabigatu eta adiskideekin txateatzeko. Eta gustatzen zaizuna telebista bada, SET TOP BOX duzu bitarteko honekin Interneten zehar nabigatzeko.

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA
Sartu interneten, eta aukeratu gehien atsegin duzun oparia. Oso erraza da. Idatz itzazu zure eskumuturreko-sarrerako datuak ordenagailuan, eta aukeratutako oparia emango dizute irteteen. Opari bat dago sarrera bakoitzeko.

PUZGARRIEN EREMUA
Txikientzat eta ez hain txikientzat, 600 m² prestatu ditugu puzgarriekin eta jolasteko gailuekin.

ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

euskadi

itb

K



Des-kontrol taldeak disko berria kaleratuko du Madrilgo Potencial Hardcore diskoetxearekin.

IKER ZAITEGI

ELKARRIZKETA

DES-KONTROL/MUSIKA TALDEA

“Punk-Oi! estiloa egiten jarraitzen dugu, eta hobetu dugula uste dugu”

IKER BARANDIARAN

Des-kontrol musika talde arrasatearra albiste da egunotan, Madrilgo Potencial Hardcore diskoetxearekin diskoa kaleratuko duelako. Markel, Oier, Aritz, Osoron eta Peter 1996a ezker ari dira *punk-Oi!* estiloa egiten.

Zelan gogoratzen dituzue taldearen lehen urratsak?

1996an, Markel, Oier, *Humpry* eta Aritz elkartu ginen. Uribeko lokaletan entseatzen hasi ginen, eta *Humpry*-k ezer jotzen ikasten ez zuenez, kalera joan zen. 1997an, Peter eta Osoron sartu eta taldeari Des-Kontrol izena jarri genion. Punk eta *Oi!* estiloak landu gura genituen.

Ez zarete kexatuko, 1998. urterako disko bat kalean zenuen...

Bai, egia da. Shot! estudioan zazpi kantu grabatu eta diskoetxeetara bidaltzen hasi ginenean, Ibizako Bronco Bullfrog diskoetxeak interesatu egin ziren. Mila kopia atera zituzten eta, dirudienez, denak saldu ziren.

Disko hark kontzertuak emateko ateak zabalduko zizkizuen, ezta?

Bueno, diskoetxeak diskoa atzerriko aldizkari eta diskoetxeetara bidali zuten eta elkarrizketa asko egin zizkiguten. Bestela, kontzertuak, batez ere, Debagoienean, Bizkaian eta

“Dagoeneko ehun bat kontzertu eman ditugu: ibarrean, Bizkaian, Donostialdean...”

“Parranda, musika komertziala, erlijioa, gerra, presoak, lana... ditugu berbagai”

Donostialdean eman ditugu. Hórrez gain, birritan Galiziarra joan gara. Dagoeneko ehun bat kontzertu eman ditugu.

Orain, disko berria da albiste, baina duela gutxi single bat kaleratu duzue, ezta?

Bai. Iaz, Donostiako Beltza Records-eko arduradunak bini loan single bat kaleratzea proposatu zigun. Vomito, Rip eta Puñetazo taldeen kanta bana sartu dugu, baita guk egindako beste bat ere. 500 kopia kaleratu ziren.

Hel diezaigun berehala kaleratu behar duzuen diskoari. Noiz grabatu zenuten?

2001. urteko uztailean grabatu genuen, bospasei egunean, Shot! estudioan. Nahiko gustura ibili ginen; izan ere, kantuak aurreko diskoan baino prestatuago eraman genituen.

Kantuak grabatu aurretik, Madrilgo diskoetxearekin diskoa ateratzea hitzartuta zenukaten?

Ez. Diskoa izango denaren kantuak diskoetxeetara bidali eta Potencial HCKoek interesa azaldu zuten. Baldintza onak eskaini zizkiguten: grabazioa ordainduko digute, diskoan hitzak euskaraz eta gaztelaniaz sartuko dituzte, 1.500 kopia kaleratuko dituzte, eta guk kontzertuetan zein tabernetan saltzeko aleak izango ditugu. Oso jende jatorra dirudi.

Zer esan dezakezue disko berriaren gainean?

Hamaika abesti ditu: zortzi euskaraz eta bi gaztelaniaz, eta bat instrumentala da. Punk eta *Oi!* musika egiten jarraitzen dugu, baina uste dugu nabaritzen dela hobeto jotzen dugula. Hórrez gain, orain, estiloa aldatu ez badugu ere, musika gogorragoa eta azkarragoa egiten dugu. Eta Puñetazo taldearen *Sucio Poder* ere jotzen dugu.

Zer esaten duzue zuen abes-tietan?

Hainbat gai jorratu ditugu: parrandak, musika komertziala, erlijioa, gerra, presoen egoera, lanera joatea...

KULTURAPILULAK

145 lan aurkeztu dituzte AEDk antolatzen dituen Arrasate Lehiaketan 15. aldian

AEDren Arrasate Lehiaketan 15. aldian 145 lan aurkeztu dituzte guztira. Horietatik, 77 ipuin, 36 komiki, hamalau bertso eta hamar zortzi poesia. Bestalde, aurtengo lehiaketan, euskalki grabazioan eta irratirerreportajeetan ez dute lanik jaso. Lehiaketako arduradunen esanetan, eskoletako parte hartzea proportzioan oso handia da, eta iaz, guztira, 188 lan aurkeztu zituzten. Emaitzak apirilaren lehenengo hamabostaldian jakinaraziko dituzte eta sari banaketa apirilaren 25ean izango da. AEDkoek jakinarazi duteenez, hamabosgarren urtea izanik, ekitaldiren bat antolatuko dute.

Udaleko Gazteria Sailak eta Lore Gazteak euskal dantza ikastaroa antolatu dute

Udaleko Gazteria Sailak eta Lore Gazteak dantza taldeak gazte-entako euskal dantza ikastaroa antolatu dute. Antolatu berri duten ikastaroa hamar urtetik gorakoei zuzenduta dago. Euskal dantzaren ikastaroak martxoaren 8an hasi eta ekainaren 21era arte irauten du. Egubakoitzero egingo dute, 19:30etatik 20:30ak arte, Lore Gazteak dantza taldearen lokaletan. Ikastaroaren matrikula beheratzi euro izango da, eta interesatuek Gazte Bulegoan (943 77 065) eman beharko dute izena, lehenbailehen.

Batukaden eta erritmo afrobrasildarren ikastaroa abian jarriko dute berehala

Udaleko Gazteria Sailak eta Iñaki Bruñak beste perkusio ikastaro bat jarriko dute abian laister. Joan den aspaldian antolatzen ari direnei jarraipena emango diete. Gauzak horrela, martxoaren 4an, 11n, 18an, 25ean eta apirilaren 8an, batukaden eta erritmo afrobrasildarren ikastaroa emango du Txatunga Benbe taldeko Inok. Ikastaro hori, beste guztiak bezala, Gazteluondon izango da. 18:00etatik 20:30era. Ikastaroan parte hartu ahal izateko, hobeik bat euro ordaindu beharko dira. Interesatuok jo lehenbailehen Gazte Bulegora edo Iñakiri deitu, 943 798025 telefono zenbakira.



Oraindik ere badute umeen konplizitatea

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak izan genituen herrian joan den astelehen, martitzen eta eguaztenean. *Altza, Porrul* ikuskizunaren hiru grabaketa egin zituzten, Arrasateko umeak eta aita-amak lagun zituztela. *Kakusai gaiztoa* eta bere edate be magikoa direla medio, hainbat abentura xelege bizi izan zituzten hiru pailazoek. Urteak pasatu arren, oraindik umeen konplizitatea dutela erakutsi zuten Txirri, Mirri eta Txiribitonek. Azpimarratzekoa izan da, era berean, beste pertsonaia lana: *Lurrupin/Kakusai*, Txan magoa, Patxi... /LEIRE KORTABARRIA

E, TXO!

GUREGAIK / DANTZALEKUAK

Gazteek oso gustuko dute dantza egin eta musikaz gozatzea

IKER BARANDIARAN

Gazteek eta nagusiek dantza egitea eta musikaren erritmoan ibiltzea dute gustuko, noski. Beste egun baten egingo dugu berba zuzeneko musikaz. Gaur, berri, musika *enlatatuaz* eta dantzaz arituko gara.

Asteburuetan, musika entzun eta gustura dantza egiten dute gazte askok. Musika estilo asko entzuteko ugari izaten da, betiere taberna, gaztetxe edo pub bakoitzaren arabera. Euskal musika, folka, salsa, merengea, *techno*-a, popa, rock-and-rolla, heavya, punka, *thrash*-a, *hardcore*-a... Denetik entzun daiteke, eta denetik dantza egin. Edozein tabernatan edo gunetan egin daiteke dantza.

Arrasaten gaur egun dantzaleku bi daude: bata, Ostarku eta bestea, Vértice

Teorian, dantza egiteko gune aproposenak dantzalekuak eurak ei dira, inguru honetan musika estilo zehatz batekin identifikatzen baditugu ere.

DANTZALEKU BI HERRIAN

Arrasaten bertan dantzaleku bi daude. Bata, aspalditik zabalik



UBANE MADERA

Techno eta musika diskotekeroaren bila dabiltnak kanpora jotzen dute askotan.

dagoena, Ostarku, alegia. Musika estilo asko jartzen dituzte. Beste, berriagoa, Vértice da, aurrez

beste deitura batzuk izan bazituen ere. *Techno* musika jartzen dute. Gehienek kanpora jotzen dute.

GAZTETXEKOEK, TXÓTX!

AGAKOK sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 2rako. Goizean irtengo dira, sagardotegi baten bazkalduko dute eta iluntzerako bueltan izango dira. Txartela erosteko azken aukera domekan, otsailaren 24an, izango duzue. Izena ematerakoan, sei euroko fidantza ordaindu beharko da gaztetxean.

JENDE GUTXI KONTZERTUAN

Gaztetxeko partaideek jakinarazi dutenez, joan den egubakoitzean egindako kontzertura jende gutxi hurreratu zen. Hala ere, Madrilgo Sarcastic Bombs taldearen doinu gogorrez eta Bergarako Cool Panic taldearen kantu lasaiagoez ederto gozatu zuten hara gerturatutakoek.

EUSKAL DANTZAK

Gaztetxean euskal dantzen ikastaroa antolatu dute, baina arrazoi batzuk direla medio, ikastaroaren hasiera atzeratu egin behar izan dute. Hala ere, martxo hasieran abiaraziko dute, eta ikastaroa domekero izango da. Ikastaroa ez da ordaindu behar izango, baina jarraipena eskatzen diete interesatuei.

DATOZEN KONTZERTUAK

Gaur bertan, 22:00etatik aurrera, Donostialdeko Ira Et Decessus eta Santanderko Cementerio Show taldeak arituko dira gaztetxean. Esan beharra dago biek ere *crust-hardcore* estiloa egiten dutela eta oso kritika onak jaso dituztela estatuan eta atzerrian. Martxoaren 8an, Señor No eta Nuevo Catecismo Catolico taldeek, biek hala biek, diskoa aurkeztuko dute. Kontzertu aurrerapenekin bukatzeko, laster, Anari eta Bide Ertzean taldeak arituko dira elkarrekin.

LOTSABARIK / Dani Márquez

“Boteiloia egiteko lekurik ez daukagu”

IKER BARANDIARAN

Dani Márquez oso mutil fina da. Goizetan Elektronika ikasten dihardu eta arratsaldeetan Alecoop-en egiten du lan. Eta egubakoitz iluntzetan, *k* Arrasate Irratiko *Draxtor* eta *In Session* saioetan aritzen da.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Ez daukat oroimen zehatzik. Oso txikitan ez, baina gerora irratik kontrolatzaile edo disko jartzaile izan gura nuen.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Espero dut elektronikarekin lotutako zerbaiten lanean. Ez

dakit Arrasaten edo kanpoan izango ote naizen, ezta ilerik izango dudana edo ez. Ikusiko dugu!

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Orain daukadana. 18-19-20: ondo pasatzeko adin aproposa. Gerxeago, ardurak hartu eta lasaiago egon beharra daukazu.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, baita ondo pasatzeari ere, jendearekin gustura egoteari...

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Egin gura dudana zerbait egiteko gai ez izateak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Oraintxe bertan ez dakit.

• Zure bertute bat?

Ordenagailuekin konpontzeko gaitasuna daukadala.

• Zure alde txarren bat?

Ez dudala behar beste ikasten.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Boteiloia egiteko leku bat, adibidez. Orain denon ahotan dago eta.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Eskuak. Musika nahasteko erraztasuna daukadala.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai, baina landu egin behar duzu. Mugituz gero, bai.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Aurpegiari.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Elektronikako modulua • ZALETASUNAK: Musika nahastea LIBURU BAT: Ez dut askorik irakurtzen • FILM BAT: 'La lista de Schindler' • MUSIKA TALDEA: Dantzatzeko musika • KIROL TALDEA: Bat ere ez.

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxes: 943 79 73 00

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritate eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Filo Belategi

TROKO DENDAKUE

XABIER URZELAI

Filo oin dala zazpi urte hasi zan Troko dendan lanien. Urte hauetan danetan, Troko Erdiko Kalen egon da, baiñe lehenago Otolara kalien euen. Lan horri esker, jentiaquin tratuan egitteko bilddur danak kendu dittuela esaten dau Filok. Lehen ez dakit zelakue izengo zan, baiñe oin jator askue da.

Amets bat?

Danok lasai bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Ez dauket amets txarrik. Lo edarto egitten dot, behintzet. Alabai gauza txarren bat pasetiek emuten dust bilddurra.

Egin dozun azken biajie?

Abuztuen, Marbellara.

Txartel horixe zeñei?

Azkenaldixen Bush-ei manixa apur bat hartu dutzet.

Eta gorrixe?

Hori be Bush-ei erakutsiko dutzogu.

Pelikula bat? Liburu bat? Disko bat?

Los puentes de Madison / Los pilares de la tierra / Musika asko entzuten dot: Estopa, La oreja de Van Gogh, Celine Dion...

Drogak legalizauko zittukie?

Baietz uste dot.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Kaleko girue jatorrague pentsetan jat. Diskotekie, barriz,...

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Azkenaldixen izen dien lapurketak diela-eta, gauez bigilantzia haundixague jarriko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Ez dot lan hori neuretako gure.

Etxeko zapatillak ala zapat?

Kalien zapatak, etxien zapatillak.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Marbellan lagun bat daukogu, Ceutan jaixotakue, eta oso pertso-



X.U.

“Azkenaldiko lapurketak diela-eta, gauez bigilantzia haundixague jarriko neuke”

na interesantie da.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Lehendakarixakin egingo neuke berba gustora.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Ahal izenez gero, senarra baiñe gaztiague eta guapuague dan norbaittekin.

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Ez dot telebista askorik ikusten, baiñe *Operación Triunfo*-k *engantxau* egin nau. Irratixen, Radio Euskadikin esnaketan naz.

Ze da gehixen saltzen dozuena?

Frakak asko saltzen dittugu,

“Aurtengue ez da urte errexa izan, baiñe rebajetan dezente saldu dogula esango neuke”

baitte udako trajiek be.

Rebajetan asko saldu dozue?

Urte gatxe izen da, eta bestetan baiñe gutxiago saldu dogu. Hala eta be, ez da txarto egon.

Nundik dator Troko izena?

Motie da. Dendako jabiaren familixaren motie.

Eskapareteko kristalak zeuek garbiketetan dittuzue?

Bai, dendako garbiketa danak geuk egitten dittugu. Baitte eskapareteko kristalak be.

Zergaittik aldatuko zeunke denda hau?

Ez dakit, oso gustora nabil hamen lanien. Akaso gaztetan gehixago ez ikestiagaittik dauket penie. Hori egingo neuke, ikesi.

NIREBIDAIAHURA/ Maider Belategi

Irlanda, Eskozia, Thailandia, Australia, Indonesia / Orain hiru urte hasi zuten bidaia

Maiderrek eta mutil-lagunak, Asierrek, bizi daukan zuku guztia aprobetxatzea dute helburu. Euren abentura orain dela hiru urte hasi zuten. Maiderrek, ikasketak bukatu zituenean, Asierri bidaian joatea proposatu zion: “Bueno, proposatu no gehiago, derrigortu egin nuen”. Asierrek, barre artan, horrela izan zela diosku, baina hark ere ez zuen oztopo handirik jarri. Zeukatzen guztia saldu, eta Irlandarako bidea hartu zuten.

Irlandan hiru hilabete egin zituzten, eta gero Eskoziara joan ziren. Hantxe ingelesa hobetzen ahalegindu ziren, eta lana egiteko ere aprobetxatu zuten. Maiderrek hotel baten egiten zuen lan, oheak egiten, eta Asierrek platerak garbitzen zituen. Horrela, bidaiarekin aurrera egiteko aukera izaten zuten, lan egin barik horrela bizi izatea oso garestia izango litzateke-eta.

Maiderrek dio hasierako hilabeteak gogorak izan zirela, baina Eskoziara iritsi zirenean bizi mota horretara ohituta zeuden dagoeneko. Eskozian lau hilabete egin eta gero, munduaren beste bazterreraino joateko erabakia hartu zuten: Australiara, hain zuzen.

Hiru urte hauetan leku askotan izan dira, baina Australia bereziki dute gogoan. Hara joan aurretik Thailandian izan ziren hilabetez, eta Australian lan egiteko baimena eskuratzea oso zaila denez, Thailandian ehunka produktu erosi eta, besteak beste, Australiara joan ziren, erositakoa saltzera. Iriz bezain laster, furgoneta erori zuten -euren etxea izan zuten Australiara-, eta zeukatena merkatuz merkatu saltzen ibili ziren. Australian hamaika bizi izan zituzten, baina deneren astera arte itxaroteko eskatuko dizuet.

XABIER URZELAI




Aithness Shetland, Eskoziako paraje zoragarria.



“Jendearen ustez, dena uzteagatik ausartak egin gara”

“Guretako, bizi osoan hemen geratzen direnak dira ausartagoak”



Danona

KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Yagoba Larrañaga Oregi

ARKITEKTO TEKNIKOA


Obra zuzendaritza.

Eraberritze eta birgaitze proiektuak.

Informe teknikoak eta jarduera espedienteak.

Arrasate pasealekua 13, beheko
Tel./Faxa: 943 79 26 88 ARRASATE

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Irakasleak ahaleginak egin behar ditu Uribarriko ikasleek banan-banan berba egin dezaten. Hala ere, oso zintzoak dira.

Oroimena eta burmuina lantzeko tailerrek, arrakasta handia

IKER BARANDIARAN

Askotan esan ohi da zahar-tuz joaten den neurrian oroimena galduz doala eta buruak ez duela lehen besteko gaitasunik. Hala ere, badira adierazpen horren aurrean desadostasuna erakutsi eta burua alfertzen ez uztea aholkatzen dutenak. Hain zuzen ere, buru-arietarik eginez, batez ere, Uribarriko zaharren egoitzako batzarkideek ere halaxe pentsatzen ei dute, eta hiru bat urte daramatzate memoria tailerra aurrera eramaten.

Aurten, esaterako, Donostia-ko Mercedes Acera psikologoak urtarileko eta otsaileko martitzen guztietan bi talderekin tailer horiek lantzen dihardu. Batez beste, hamahiru bat lagun dabil-tza talde bakoitzean, eta gehie-nak emakumezkoak dira.

BURUAREN ARIKETA FISIKOA

Mercedes Acerak azaldutakoaren arabera, oroimena baino areago, buruko ahalmenekin egiten dute lan. "Lehenik, buruko demenziak zer diren azaltzen diegu. Eta hor-

tik aurrera, dementzia eta nahaste soilak bereizten irakasten diegu. Jakin dezatela askotan daukaten oroimen falta ohikoa dela edo kasu konkretu batzuetan laguntza eskatu beharko dutela. Oroimenaren nahasteei beldurra kendu behar diete".

Arretan, kontzentrazioan eta

buruko jarioan oinarritzen dira, batez ere, buruko gimnasia edo ari-kerak egiterakoan. Horrez gain, oroimena hobeto gordetzeko teknika bat ere ikasten dute, eta iru-dimena eta sormena landu. Eta antolamenduari eta ordenari ere garrantzia ematen diote. "Adibi-dez, egunero giltzak leku jakin baten uzten badituzte, horiek gal-tzeko aukera gutxiago izango dituzte", azpimarratu zuen Mercedes Acerak. "Horrelako gauzek asko laguntzen dute".

Gu izan ginen tailerrean, behintzat, ikasleak oso gustura zebiltzala esan dezakegu. Irakasleak ariketak proposatu eta burua pixka bat estututa, erantzunak ahal bezain ondo egiten ahale-gintzen ziren. Berba jakinei hain-bat esanahi aurkitzea zen egin-beharra, eta gogoz ibili ziren bata zein bestea proposatuz. Hamahiru lagun zeuden martitzenean; horien artean, hamaika emakume eta bi gizon, zein baino zein gogo handiagoarekin eta zein baino zein berriitsuago. Koadernoak har-tu eta ordu eta erdi gustura burua estutzen.

Denbora-pasa aberasgarria

Hasiera baten bitxia iruditzen zaigu jende nagusia koaderno eta guzti mahai baten denak elkarrekin ikustea. Are gehiago, irakaslearen esanak entzun eta ariketak egiten hasten badira.

Gerora, ikusi genuen ariketak egin eta buruari gogor eragiteaz gain, ederto pasatzen dutela ikastaro edo tailer horretan dabilzanak.

LABUR

Martxoaren 2an, zapatuan, batzar orokorra egingo dute Uribarriko zaharren etxeok

Martxoaren 2an, zapatuan, batzar orokorra egingo dute Uribarriko zaharren etxeok. Batzar orokorrean hainbat gai landuko dituzte: esaterako, azken urteetan Zuzendaritza batzordea osatu duten partaideek kargua utzi eta lagun berriak sartu beharko dira aurrerantzean. Dena dela, Uribarriko egoitzako ekintza jarduera ez da motelduko, ezta gutxiago ere.

51ko eta 58ko kintoek urteroko batzarra egingo dute martxoaren 2an

51ko kintoek -1930ean jaiok- batzarra izango dute martxoaren 2an: 12:30ean, meza parrokiar; gero, txikiteoa, eta ondoren, bazkaria Musakolako Hostalean. Juan Jose Uribarreni deitu (943798008). 58ko kintoek -1937an jaiok- egun berean: meza parrokiar, eta ondoren bazkaria izango dute Udalpen. Jose Riviereri (943795017) edo Pedro Fernándezi deitu (943790248), lehenbailehen.

ZAHARREN AHOTIK

Consuelo Azkarraga

ERRETIRATUA

Consuelo 1920an jaio zen, Ferreriasen. Uribarriko zaharren egoitzan egiten dituzten txangoen animatzaile sutsua dela diote.



Zelakoak izan ziren haurtzarora eta gaztarora?

1920an jaio nintzen, Ferreriasen, orain dagoen Lagunilla tabernaren gainean, hain justu. Gure amandreak azpiko kortan txerriak zituen. Mojetan, klaustroetan, ikasten ibili nintzen. Eta hamalau urterekin Elman lanean hasi nintzen, ehogailuak eta izozki-makinak egiten. Orduan, emakume gutxi genbiltzan.

Eta orduan gerrak harriatu zintuen, ezta?

Bai. 1937an, tren berezia jarri zuten eta hemengo familia asko Bilbora joan ginen, errefuxiatuta. Handik Mundakara, eta han geundela Gernika zelan bonbardatu zuten ikusi genuen. Gu ere egun berean joateko ginen, azoka eguna zen-eta. Gernikakoa gertatu eta gero, kamioietan Gallartara eraman gintuzten frankistengandik ihesi. Gae-

ro bonbardatzen gintuzten, eta mehatzetan ezkututzen ginen. Handik Bilbora jo genuen. Gogoan dauzkat Bilboko zappi kaleak koltxoiez beteta. Paradoxikoki, ahizpa bat erre-kete batekin ezkondu zen eta hark atera gintuen handik.

Zelakoa izan zen Arrasatera itzulera?

Aita kartzelara sartu zuten eta ni Elmara bueltatu nintzen, baina hurrengo egunean alde egiteko esan zidaten. Aramaioko oihal fabrika baten hasi nintzen, urteetara Elmatik berriz deitu zidaten arte. Gerora, ezkondu eta hiru seme-alaba izan nituen.

ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxe: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Ainhoa González
Otsailaren 27an, 5 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Izar Elustondo
Otsailaren 27an, 6 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Laura Balanzategi
Otsailaren 23an, 4 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Ander Molinuevo
Otsailaren 23an, 4 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE
Náyade Isturiz
Otsailaren 16an, 11 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Iker Barbero
Otsailaren 24an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Xabier Beltzuen
Otsailaren 26an, 24 urte.
Zorionak, Tito! Lagunen partetik.



ARRASATE
Rafa Godoi
Otsailaren 15ean, 43 urte.
Zorionak eta urte askorako! Jose eta Maite.



ARRASATE
Virginia Pan
Otsailaren 16an, 27 urte.
Zorionak eta urte askotarako! Jose eta Maite.



ARRASATE
Xabi Aranzadi
Otsailaren 23an, 23 urte.
Zorionak! Ainhoa eta Gaizka.



ARRASATE
Maialen Aranegi
Otsailaren 21ean, 19 urte.
Zorionak! Ainhoa eta Gaizka.



ARRASATE
Iker Barrutia
Otsailaren 28an, 8 urte.
Zorionak! Aitona, amona, gurasoak eta izeko Deikunde.



ARRASATE
Jokin Barrutia
Otsailaren 28an, 8 urte.
Zorionak! Aitona, amona, gurasoak eta izeko Deikunde.



ARRASATE
Hiba Zabala
Otsailaren 27an, 23 urte.
Zorionak, Itxasoren eta Pressko lagunen partetik.



ARRASATE
Maider Osa
Otsailaren 15ean, 24 urte.
Zorionak! Pastela, sekulakoa! Lankideak.



ARRASATE
Oskar Bereizbar
Otsailaren 24an, urte batzuk.
Zorionak, Ainhoa eta Maiteko familiaren partetik.



ARRASATE
Nerea Urrea
Otsailaren 25ean, 20 urte.
Zorionak, bertsolari! Pisu-kideak eta TMT.



ARRASATE
Jose Francisco Zabala
Otsailaren 20an, urte batzuk.
Zorionak, familiaren partetik.



ARRASATE
Iñaki Agirreurreta
Otsailaren 21ean, 38 urte.
Zorionak, lagunen partetik.



ARRASATE
Jul Bolinaga
Otsailaren 22an, 38 urte.
Zorionak, lagunen partetik.



ARRASATE
Txema Valle
Otsailaren 27an, 40 urte.
Zorionak, Txominen (26an, 4 urte!) eta lagunen partetik.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta
ARGAZKILARIA

GRAN LUJO INDEX PROMOZIOA
ZURE ARGAZKIAK HANDIAGO

13X19cm-koak
10X15 cm-ko prezioan

Kalitate berria

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18



Ba al dakizu zer dagoen begirada eder baten atzean?...
Eta aurrean?

Multi
ESKAINTZAK
MULTIOPTICAS

BONARDI
AIREKO
ARMAZOI
BERRIAK

49
8.153 €
pta.

MULTIOPTICAS

BERGARA
Tel. 943 76 15 75

ARRASATE
Tel. 943 79 29 95

ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88

02-03 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



- **Epea: 2000n eta 2001ean jaiotakoak**
Otsailaren 18tik martxoaren 1era
2002an jaiotakoak
Otsailaren 18tik martxoaren 29ra
- **Non: UMEZAINTZAN**
(San Andres 8 /San Josepe auzoa)
Tel.: 943 77 20 25 /ext.:301

Instalazioak ikusi edo entrebista pertsonala egin nahi izanez gero, aurretik telefonoz abisatu.



Umezaintza




ARRASATEKO UDALA

Hezkuntza Saila ■

Gazte ikastaroak

Euskal Dantza ikastaroa:

- Martxoaren 8tik ekainaren 21erarte.
- Ostiraletan 7:00retatik 8:30ak arte.
- Lore Gazteak taldearen lokaletan.
- 10 urtetatik gorakoei zuzenduak.
- Matrikula: 9 €
- Izen emateak:
Gazte Bulegoan 943 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko otsailaren 22a / 16. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Bixente Goikoetxea abesbatza, jende gazte beharrean

UBANE MADERA

Aramaion tradizio luzea duen zerbait baldin badago, hori Bixente Goikoetxea abesbatza da. Gutxienez, mende bi ditu abesbatzak. Seguruenik, dezente zaharragoa ere izango da. Eta, aurrera segitzeko asmoa duen arren, jende gaztea behar dute abesbatzan, jarraipena ziurtatzeko.

Gaur egun, laguntzaile eta guzti, 28 bat lagunek osatzen dute Bixente Goikoetxea abesbatza: "Baina gehienak nagusiak gara, oso gazte gutxi dago, eta, ondorioz, jarraipenak arazoak eman lezake", adierazi digu abesbatzako presidentek. "Musika apur bat dakiena etorritz gero, ilusio handiaren hartuko genuke; hala ere, ez dakienak ere atek zabal-zabalik ditu". Izan ere, presidentek kon-

tatu digunez, orain dela zortzi hilabete, musikariek egiten ez zekiten abesbatzako kideak musika ikasten hasi dira, Victor Mendiadua organistak lagunduta. Oro har, berritasuna gura dute abesbatzan. "Akaso jende gazteak ez du izango gurekin abesbatza osatzeko ilusiorik. Hori ere pentsatu dugu, eta orain dela pare bat urte erabaki genuen eurak beste talde bat sortzeko gertu egonez gero, geu laguntzeko gertu gaudela; edozertan, baita dirua ematen ere".

Bestalde, entsegu sistema aldatu egin du abesbatzak. Urtrilean hasita, taldeka egiten dituzte entseguak, eta lau astetik behin guztiek batera. Orain arte, astean behin elkartu izan dira.

Bixente Goikoetxea abesbatza Arabako abesbatzen federazioaren barruan dago. Eta federazioak antolatutako programan hartzen du parte. Iaz, adibidez, Legutio abestu zuten. Urtero Estibalitzera joaten dira abestera, eta Gasteizen ere Gabonetan kantatu ohi dute. Eta, horrez gain, ezkontzetan, parrokiari, jaietan eta antzerakoetan ere abesten dute.

Martin Arana aramaioarra da abesbatzako zuzendaria, eta Victor Mendiadua, organista.



BIXENTE GOIKOETXEA ABESBATZA


Katalunian, Madrilan, Toledon eta Bizkaian, besteak beste, kantatu du abesbatzak.



Udalbatzarrak bilkura egin zuten

Hileroko osoko bilkura egin zuten zinegotziek eguaztenez. Zortzi gai zituzten zerrendan. Horien artean, herriko lan txiki batzuk; esaterako, Suñarako ur-hornidura sarean Murruta adar bat sartzea aztertzeko asmoa zuten. Bestela, Hezkuntza eta Euskara batzordearen barruan, proposamen bat da nabarmentzekoa: Badihardugu hitzarmena sinatzea; hau da, Debarroko euskalkiak indartu eta bultzatzeko sortu den taldearekin hitzarmena sinatzea. Edozelan ere, albiste hau idaztean, bilkura egin barik zegoen, hortaz, ez dakigu zertan geratu den.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer diozu Madrilan neska musulmanarekin gertatu denaz?



MIREN IBABE
Langilea

Ezergatik larregiko istilua sortu dutela uste dut. Badaude gauza inportanteagoak. Gainera, bere kulturarekin bat badator...



SALVADOR ARROTXA
Pentsioduna

Gaizki iruditzen zait. Koranak emakumeari agintzen dio errespetuagatik burua estali behar duela. Islamarekiko sumisioa adierazten du horrek.



JUAN LUIS NAFARRATE
Langilea

Gehiegizkoa da. Askatasun osoa du gura duen heziketa gura duen tokian hartzeko, eta janzkerak eta horrelako gauzak alde batera utzi behar dira.



KRISTINA UNTZUETA
Erretiratu

Txarto iruditzen zait hori. Neskak hark ez luke arazorik izan behar. Bere kultura horrelakoa bada, horrela joan beharko da, beste barik.



ALBERTO ZUGASTI
Langilea

Nik uste dut lasai asko joan beharko litzatekeela gura duen moduan. Buruko zapi bategatik... Aizu, bikinian ez doa, ezta?

LABUR

Ipuin lehiaketako sari banaketa izango da bihar

Bihar, zapatua, Txirritola Elkartek antolatutako ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte. Kultura etxean izango da ekitaldia, 13:00etik aurrera. Rosa Mondragonek, Divina Arriolabengoa eta Xabier Agirrek osatu dituzten epaimahaia. 19 idazlanen artean aukeratu beharko dituzte sei onenak. Zortzi urtetik 13 urte arteko ipuinak izango dira. Txirritola Euskara Elkartea pozik dago lehiaketak izan duen harrerarekin.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABUR

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakunde kulturalendako dirulaguntza deialdirako aurkezteko epea joan den astean bukatu zen. Orain, Arabako Foru Aldundiko Kirol Sailak eta Ongizaterako Foru Erakundeak zabalduko dute epea. Eskaera orriak edo informazio gehiago jasotzeko, Zuiako Kultura teknikari Zuriñe Zabala eguaztenero izango da Udaletxean.

PALETA TXAPELKETA

Aurreko asteburuko emaitzak hauek izan ziren: Nafarrate-Flores 35, Armendariz-Orobengoa 31; Aspe anaiak 35, Berasaluze-Errasti 27; Ojanguren-Garaita 35 Barandiaran aita-semeak 26. Oraingo asteburuan, atzeratutako partidu bi jokatu dituzte: 09:00etan, Emilio-Xabi Ojanguren-Garaita eta 10:00etan, Abarrategi-Arriolabengoa Amasene anaiak. Hortik, A taldetik finalerdietan jokatu duen bigarren bikotea aterako da. Izan ere, A taldetik Azurmendi-Arriolabengoa bikotea sailkatuta dago dagoeneko. B taldetik, berriz, Ojanguren-Garaitak eta Barandiaran aita-semeek jokatu dute finalerdian.

ZINEMA

Cocodrilo Dundee en Los Angeles filma emango dute. 17:00etan, kultura etxean.

KIROLA

Herriko neska gazteak gogor eta gustura ari dira Bañera areto futbol taldean

Iaz, areto futboleko jokatu gura zuten neska taldea sortu zen Aramaion. 13 eta 14 urte dituzte, eta Aramaio neskez osatutako lehen areto futbol taldea osatzen dute. Bañera kirol elkarteko neskek dira. Eskarne, Maialen, Olatz, Irati, Garazi, Ane Agirre, Ane Uriarte, Ane Mondragón, Lorea eta Jone dira jokalariek. Alberto Ibabe eta Alfontso del Campo entrenatzaileen aginduetara, bariku arratsaldeetan elkartzen dira entrenamendu saioak egiteko, Aramaio kiroldegian. Eta zapatuetan, partiduak jokatzen dituzte Arabako Eskola Kirola izeneko programaren barruan. Guztira, zortzi talde ari dira lehiatzen han, horietatik, hiruzpalau talde daude neskek bakarrik osatuta; gainerakoak talde mistoak dira, eta horrek zailtasunak sortzen dizkie aramaiotarrei. Baina, jokalariek kontatu digutenez, pozez eta ilusio handiz hartzen dituzte partidu guztiak.

Gauzak horrela, oraingo asteburuan, El Campillo taldearen kontra aritu dira, eta 2-21 galdu zuten etxekoek. Bihar, berriz, Z.A. Santamariaren kontra jokatuko dute, Agurainen, 10:30ean.



Beheko argazkian, Bañera K.Eko futbito taldeak.

HERRIKOKONTUAK

ANBOTOKO SEÑORIE

— Anbotoko Señorie kobazuluen bizi zan?
— Bai, koban esaten daue, kobazuluen, handik juaten zala Aloña.
— Bai, Aloñako kobara esaten daue. Jesus! Hoi famosue izen zan. Ta ezta kitt argittasunek ikusi itten zittuela esaten daue, eta beheko etxeko gizonak ikusi hauen argittasune (...). Haek bene-benetan esaten auen, ezta pa nik ze izengo zan.
— Mari, Mari. Salgokue zala esaten daue, eta!
Salgokue, ta ezautzela, maldeziñue botutzela amak, ero?
“Anega erdixek ale dauken beste egunien, ibilliko dala aidien” ero, ezta kit zer be.
— Okerra zalako ero?
— Bai, okerra zalako. Anega erdixoi gastau ingo jakon. (Barre).
— Da zer ibiltzen zan, egaxien?
— Ba argittasune, niri sekula etxaten pasau ikusteik, baiñe esate, shhhhhiiii! argittasune paseta zala esate auen jentiek orduen, eh, holakotxe, ssshhheeee, gauza bat paseta zala Aloña aldea, paseta zala esate euen, gu gaztiek gitzenian da be. Sekula etxaten suertau ikusteik pañe.
— Argittasuna bakarrik, fletxa bat bakarrik, dseeeeeeee!!! ikusten zala!!!! Fletxa bat bakarrik. Argittasun bat.

Eustaki Agiriano
‘Aramaioko Ipuinak eta Legendak’

BOTEPRONTOAN/ Gotzone Larrañaga · Untzilla auzoko alkatea

“Auzoekin elkartasun handiagoa izatea eskatuko nioke Udalari, gehiago akordatzeko gurekin”

Oraingo honetan, Udalerriaren beste aldera egin dugu, Untzillara. Han, Gotzone Larrañaga aurkitu dugu, auzo-alkatea, gu hartzeko gertu asko Uxarteko bere baserri turismoa. Larrañagatarren bosgarren belaunaldiaren ordezkaria da hura, “eta azkena, geratzen garenok neskek gara-eta”. Orain dela bi urte pasatxo aukeratu zuten Gotzone auzo-alkate; hortaz, laster kargua uztea tokatuko zaio, auzokideen artean txandaka egitea erabaki zuten-eta:

Auzo-alkate izateaz gain, saltsa askotan ibilitakoa ei zara?
Auzo mailan gizonak gehiago ibiltzen dira. Ni, baserri turismoa zabaldu nuenean orain dela sei urte, buru-belarri sartu nintzen lanean eta nahiko gogor, gainera. Izan ere, hasieran, baserri turismoa Eusko Jaurlaritzaren mende zegoen, eta orain gurea da. Eta hori lortu zenean, orain dela hiru urte, elkarteko lehenengo presidentea izan nintzen:

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako baserri turismoen elkarteko presidente. Elkartearen bulegoa Donostian dago, Kursaalaren Baina bulego horren kokapenerako hautagaietako bat Aramaio izan zen.

A bai?

Bai. Udalerriaren ginen, lokalak ere lortuta genituen; baina Kursaalaren eman ziguten lokala, eta hantxe dago bulegoa.

Baserri turismoa ibili aurretik, hirugarren adinekoak etxean zaintzen ibili nintzen. Zuiako Koadrilarekin hasieran, eta azkenean, Aramaion.

Untzillara etorrita, zeintzuk dira auzoaren ezaugarriak?

Arabako lehenengo edo atzeneko herria da. Kilometro eta erdira Gipuzkoarekin muga dugu, baina arabarrak gara.

Zenbat baserri daude?

Untzillan, Suñan eta Murun, guztira, 24 baserri eta 148 bat lagun bizi gara. Orain, lehen baino jende gehiago.

Eta zelan jende gehiagorekin?

Jende berria etortzea beti da



mesedegarria, aberastasuna dakarkio auzoari. Baina nik uste dut kontuan hartu behar dela eurak datozela baserri giroa. Eurak moldatu behar dira gure ohituretara, eta ez gu eurenentara. Eta Untzillan, orain arte, justu-justu ezagutzen ditugu, eta besterik ez. Hori bai, euren gaineko kexarik ere ez dugu, bat ere.

Igarri da auzoan baserri turismoaren eraginik?
Kanpoko jendea gutxi ibiltzen da auzoekin. Auzoa ikusten dute eta esaten dute luxua dela. Geu ere euren esker konturatu gara luxu horrekin. Gehienak hemengoak dira, Gasteiztik datorren jende gaztea, eta azkenaldian hasi dira Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako gazteak ere etortzen. Jeneralean bikoteak dira, lasaitasun bila etortzen dira. Bestela, Madrilgo eta Bartzelonako jendea etorri izan da.


Zer eskatuko zenioke Udalari?
Bereziki, auzoekin elkartasuna, gehiago akordatzeko gurekin.

ERRETRATUZAHARRA

Ibarrako bainuetxearen marrazkia

Ibarran bazen Santa Ana izeneko iturri bat. Auzokideek hango urak erabiltzen zituzten, gaitz batzuei aurre egiteko. Baina ez zegoen urak aprobetxatzeko instalazio berezirik eginda.

Aldiz, XIX. mendean, bainuetxe ugari zabaldu zituzten, hain justu, ur sendagarriak erabiltzeko. Santa Ana iturriaren jabeak, Antonio Madina jaunak, gauza bera egitea erabaki zuen. Horrela, 1827. urtean lau bainuontzidun etxe txiki bat eraiki zuen. Hango urak onak ei ziren azaleko gaixotasunendako; herpes, legena eta antzekoendako. Azterketak egin eta gero, adituek adierazi zuten urak sodio-sufredun klorurodunak zirela, eta sodio eta kaltzio ugari zeukatela. Edozelan ere, dirudienez, Antonio Madinak ez zuen arrakasta larregirik lortu bere lau bainuontzietan. Herritarrek bakarrik erabiltzen zituzten. Izan ere, Aramaiokoa baino dezente modernoagoak ziren bainuetxe mordoak zegoen orduan inguruetan. Hori dela eta, hiru urte geroago,



Madinak ere eraikina modernizatzea erabaki zuen; Jose Antonio Garaizabali planoak enkargatu zizkion eta, horrela, erdiko eraikina egin zuten. Hasieran, han ipini zituzten bainuontziak. Baina, errepide berriarekin batera, geroago eta jende gehiago joaten zen bainuetxera, eta 1881-

1884an, bezeroendako lekua egiteko, beste bi eraikinak egin zituzten. Bainuontziak lekuz aldatu zituzten, eta gero kuartela izan zen eraikinean ipini, ezkerrekoan. Erdialdeko gunea bezeroen aisialdirako eta atsedendaldirako erabiltzen zuten eta goiko pisuetan, berriz, logelak egin zituzten.

Lanon ondoren, Euskal Herriko bainuetxe onenen artean sartu zuten Aramaiokoa. XX. mende hasieran itxi zuten Aramaioko bainuetxea.

Argazkia: Pedro Ibabe
Informazioa: Jesus Mari Elejalde Plazaola
Urtea: XIX. mende amaiera

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garagartza auzoa, goitik ikusita

Garagartza auzoko argazki bat aukeratu dugu oraingoan. Argazki hau ateratzeko nahiko arazo izan dugu, orduan ez zeuden-eta gaur egun dauden pinudiak. Horrexek azaltzen digu, besteak beste, auzo hau zenbat aldatu den. Orduko baserriak berrituta daude gaur egun, eta, horrez gain, auzoan etxe mordoak eraiki dituzte. Lehen, lantegirik ere ez zegoen.



≈ 1935 Garai hartan, Arrasatetik Garagartzarako bidea nahiko ezberdina zen. Gaur egun, ia bide osoa argizatuta dago.



2001 Eskerrak elizak, behintzat, bere lekuan jarraitzen duen, bestela ez genuke sekula asmatuko argazkikoa zein auzo den.

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkuntzak

LEHEN HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA

D
eredua

D.B.H.

943 79 27 73

zurekin

HAURTZAINDEGIA
ZERO urtetik
61,00 euro hilean

La Merced Ikastetxea



AMAGARA

Erdiko kale 54 · Arrasate · 943 79 09 09

**Aste Santurako
eskalintza berezial**

SOLARIUMA:

Fototipoen fitxa

Izpi esposizio kontrolatua

Babes faktoreak (azaleko mantxak, erreakzioak...)

Dutxa zerbitzua + gorputzeko eta aurpegiko hidratazioa.

Guztia barne!

6 saio + 1 opari

42 € bakarrik

Adi! Otsailaren
23tik martxoaren 23ra

Gogora ezazu zure zelulitis arazoaren
konponbidea daukagula!

ENDOMASAJEA + ULTRASOINUAK



Gida 2002

Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz Gatzaga
Aramaio

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Gida 2002

Bergara
Antzuola
Elgeta

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

GIDA BEHARREAN BAZAUDE...

Denden, lantegien, elkarteen
eta zerbitzuen telefono
eta helbideak, zure esku.

ETORRI BILA

Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31
Bergara: Irizar jauregia. Barrenkalea 33
Aretxabaleta: Durana 11- 2. solairua

EDO BIDALIKO DIZUGU

Deitu 943 79 21 00 telefonora eta
postaz jasoko duzu. Gida bakoitza 3,6

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak